

ITXI ETA GERO

Ehunka urte behar dira zentral nuklearrak eraisteko

Allande Boutin

«Sanoagoa da sukaldeko lana politikariek egitea kazetariak baino»

Roberto Jimenez PSN

«Baskismora eboluzionatu behar dugu gehiago»

Larrun

Josep Fontana historialaria

Euskalduntzea

Lankideek lagunduta mihia askatu dutenen esperientzia

Net Hurbil

Kanadako indigenek mobilizaziora deitu dute 28rako



www.argia.com/multimedia




Beranduegi

Interneteko telebista saioa asteartero: umorezko albistegia, lehiaketa, elkarrizketak, erreportajeak, kultura...



Bideoak

Elkarrizketak, erreportajeak eta albistek formatu arin eta azkarrean astero.



Diaporamak

Soinu naturalez, azalpenez ala musikaz girotutako argazki muntaia berritzaileak.




Argazki galeriak

Kanpoko zein bertako argazki bilduma ikusgarriak begiaren gozamenerako.




Ekitaldiak

Hitzaldi eta ekitaldi interesgarriak klik batean eta euskaraz, baita nazioartean emandakoak ere.




Film laburrak

Erabiltzaileek sarean zintzilikatutako euskarazko film laburren hautaketa.



Dokumentalak

Dokumental berri bat astero. Euskaraz edo euskarazko azpitoluekin.



Bereziak

Teknologia berriak baliatuz, informazioa emateko muntaia bereziak: kronologia interaktiboak, mapa ilustratuak...



Bideo herrikoiak

Euskal Herrian jendearen ekimenez egindako bideoen biltokia.



Azaleko argazkia:
DANI BLANCO
Azala: GARBINE
UBEDA GOIKOETXEA



Jabetza: Komunikazio Biziagoa, S.A.L. Lehendakaria: Ixabel Bereziartua. Zuzendaria: Xabier Letona. Zuzendariaren albokoa: Pello Zubiria. Astekariko erredakzio-burua: Estitxu Eizagirre. Asteko Gaia-Pertsonaia: Mikel Garcia. Iritziak: Mikel Asurmendi. Kultura: Garbine Ubeda Goikoetxea. Aisia: Unai Brea. Termometroa: Urko Apaolaza. Euskara: Onintza Iureta. Interneteko erredakzio-burua: Lander Arbelaitz. www.argia.com: Gorka Bereziartua, Jon Torner. Multimedia: Axier Lopez. Argazkilaria: Dani Blanco. Produktzioa: ANTZA, S.A.L.

Kudeaketa eta salmenta: Berdaitz Goia. Harpidetzak: Karlos Olasolo. Idazkaritza teknikoak: Aloña Soraluze. Publizitatea: Idoia Arregi, Maite Arrieta, Ixabel Bereziartua, Olatz Korta. Administrazioa: Marijo Aiertza, Mari Karmen Loiarde. Harrera: Jone Arzallus.

HELBIDEAK: Gipuzkoa: Industrialdea, 15. 20160 Lasarte-Oria. Tel: 943 371545. Faxak: 943 373403 (erredakzioa), 943 361048 (komertziala). Lapurdi, Nafarroa Beherea eta Zuberoa: Xalbardin baita. 64122 Urruña. Tel: 559 476000. Faxe: 559 476001. Nafarroa: Gazteluko Plaza 44, 3. eskuina. 31001 Iruñea. Tel: 948 222285. Bizkaia: Eleizalde 1, 2-D. 48600 Sopela. Tel: 94 6765580. POSTA ELEKTRONIKOA. Komertziala: komertzial@argia.com. Harpidetzak: harpidetza@argia.com. Erredakzioa: kazeta@argia.com. Interneten: www.argia.com. Lege gordailua: NA 80-1963. ISSN: 0213-909X. Batzorde parekidea: 72562 E. Inprimategia: Antza S.A.L. Informatika: iametza interaktiboa, S.L. Urtebeteko harpidetza. Hego Euskal Herria: 145 euro. Ipar Euskal Herria: 176 euro. Espainia: 145 euro. Beste atzerriak: 182 euro. Airez: 285 euro. Komunikazio Biziagoa S.A.L. Ametzagaitza Taldeko partaidea da.



**EUSKO JAURLARITZA
GOBIERNO VASCO**

KULTURA SAILA
Hizkuntza Politikarako Sailburuordetzak
diruz lagundua



Gipuzkoako Foru Aldundia



NON ZER

2013ko urtarrilaren 27a, 2.354. zenbakia

ASTEKO GAIA

ZENTRAL NUKLEARREN ERAISTEA Neurrigabea, inkognitaz josia. JOXERRA AIZPURUA / 4

PERTSONAIA

ALLANDE BOUTIN: «Hemen bizi eta ikusten ez gaituen jendearengana nola heldu pentsatu behar dugu». SUSTRAI COLINA / 9

GAIK

VINCE JUARISTI: «Historia hau aitarena eta nirea da, baina zentzu askotan etorkin askorena ere bada». MONIKA MADINABEITIA / 14

IRITZIAREN LEIHOA

KRISIALDI HONI AURRE EGITEKO ESTRATEGIA BAIKORRAGOA BALEREN BAKAIKOA AZURMENDI / 18

TRUKEAREN MITOA IÑAKI ODRIOZOLA / 20

EUSKAL TELEBISTA: HAS GAITEZEN, BERRIRO

JOSE INAZIO BASTERRETXEA / 21

GORA PRO NOBIS ASISKO URMENETA / 19

TXANDAN Ohoinkratak. ITXARO BORDA / 20

BERTSO BERRIAK Krisia. IMANOL LAZKANO / 21

ZIRTAK Antzaratik antzarara. BEÑAT SARASOLA / 22

ERDIKO KAIERA

TXIMINI KOLEKTIBOAREN 'KEA' FILM LABURRA

Arkitektura industrialari gorazarre. MYRIAM GARZIA / 23

LITERATURA SAIOA RUIZ GONZALEZ, GORKA BEREZIARTUA / 26

MUSIKA IKER BARANDIARAN / 27

DENBORA-PASAK ANA ZAMBRANO, KIKE AMONARRIZ / 28

ALEA Arte garaikidearekin jolasean.

GARBINE UBEDA GOIKOETXEA / 29

IHESI DONAPALEU Azken harresia. ITZIAR MADINA / 30

ZIENTZIA ETA TEKNOLOGIA JOXERRA AIZPURUA / 34

LANDAREAK JAKOBA ERREKONDO / 35

DENBORAREN MAKINA NAGORE IRAZUSTABARRENA / 36

TERMOMETROA

ROBERTO JIMENEZ: «Baskismora eboluzionatu behar dugu gehiago». MIKEL ASURMENDI / 37

EGIPTO Tahrir plaza zauri batek banandu du.

MARC ALMODÓVAR / 41

EUSKARA IKASTEN LANTOKIAN Lankideak bidelagun.

SAIOA LABAKA / 43

EKONOMIAREN TALAIAN JUAN MARI ARREGI / 47

EUSKARA ALBISTEAK ONINTZA IRURETA AZKUNE / 47

NET HURBIL '#idlenomore' Kanadako indigena haserretuek aldarri. PELLO ZUBIRIA KAMINO / 48

MALTZAGATIK XABIER LETONA / 50

ZENTRAL NUKLEARREN ERAISTEA

Neurrigabea, inkognitaz josia

Zentral nuklearrak eraistea ez da ahuntzaren gauerdiko eztula, erradioaktibitateak eragiten duen amesgaiztoa ez baita planta ixtearekin batera amaitzen. Prozesu arrunt luzea eta ikaragarri garestia da atzetik datorrena, baina batik bat, ezezaguna, zientzialaririk jakintsuenak ere sasi-eskola egiten dutenen pare uzten dituen. Kontuan hartzeko baldintzak, krisi garaiotan aitzakia bila dabiltzanentzat.

| JOXERRA AIZPURUA |

DENBORAK AURRERA egin ahala, agortu egingo dira Garoña zutik edukitzeko aitzakiak. Gero eta hurbilago dago zentral nuklearra eraisteko pausoak emateko unea, eta honen bestez, gero eta zailago dute horretarako iragarritako epeari, aurtengo uztaila, luzapenak

asmatzea. Batek baino gehiagok ospatuko du berrogei urte bete dituen zentralaren itxiera eta askorentzat historiarako geldituko den gertaera bilakatuko da.

Zentralak ez du dagoeneko elektrizitaterik sortzen, baina muinetik darion erradioaktibi-



Txernobilgo 4. erreaktoreari egin beharreko estalki berriak –Munduko Zortzigarren Miraria deitu izan zaio– aspaldi behar zuten bukatuta. Lehendik duen hormigoizko sarkofagoak pitzadura larriak eta beste ditu. Kutsatzen jarraitzen du.

tatea ez da uztailean etengo. Nuclenor enpresak eraiste-plangintza aurkeztu beharko du tartean, eta plangintza hori ezagutu arte ezer gutxi ziurta baliteke ere, ez genuke harritu beharko Garoñako zentralak hartzen duen eremua beste ehun urtez –gehiago ez badira– erabiltzerik ez balego. Hainbat dira munduan itxi behar diren zentral nuklearrak, eta horretarako planteamendu estandarrak baldin badaude ere, horietariko zentral bakoitza laborategi bakan bilakatuko da.

Zentralak jendearen borondatez itzaltzea gauza bat da. Arrunt bestelakoa da istripuz edo matxuraz itxi behar izatea. Gogoan ditugu Txernobil eta Fukushima, baina Kataluniako Vandellos I ere akatsengatik itxi zuten.

Krisi ekonomikoaren aitzakian

Zentral nuklearren eraisteak zer nolako dimentsioa hartzen duen, hiru datuk adierazten dute ondoen. Bat: kasurik gehienetan ehun urtetik gora behar dira eraiste prozesua amaitzeko. Esan nahi baita, egun bizi garenok ez dugu zentral nuklearren eraiste erabatekoa ezagutuko. Bi: ehun milioika euro behar izaten dira langintza behar bezala burutzeko, eta honenbestez, erraz da imajinatzea zeregin hauek baztertzeko tentazioak ugariak izango direla, edo azkar eta baldar joka litekeela, sosak aurrezte alde. Eta hiru: zentral nuklear arruntak erradioaktibitate-maila ezberdinetako 10.000 m³ hondakin sortzen du. Hondakin erradioaktiboak zentralaren muinean aurkituko ditugu, erregaia egon den tokian, baina muina osatzen duten elementuak tratatzeko modurik ez dago. Hor nonbait pilatuko dira, beraz, ontziak eta gainerakoak. Zentraleko porlanezko hormei eta gainerako elementuei, bestalde, ehun urte pasatsutan apalduko zaie erradioaktibitate maila, edo hala uste da behintzat.

Artikulu hau irakurriko duen inork ez du jakingo benetan Garoña behar bezala eraitsiko ote den, ez baita ordura arte biziko

Garoña txikia da martxan diren beste zentralekin alderatuta, eta aditzera eman izan zaigunez, ez du istripu larririk izan funtzionatu duen bitartean. Hortaz, eraiste “normala” espero beharko genuke. Alabaina, artikulu hau irakurriko duen inork ez du jakingo benetan Garoña behar bezala eraitsiko ote den, ez baita ehun urte barru biziko. Hortaz, eta gerratan esan ohi den bezala, irabazlea



Zentral nuklearrak munduan

Estatua	kopurua	MW	Eraikitzen
AEB	104	101.216	Txina 27
Frantzia	58	63.236	Errusia 11
Japonia	55	47.348	Hego Korea 5
Errusia	32	23.084	India 5
Alemania	17	20.339	Japonia 2
Ipar Korea	20	17.716	Eslovakia 2
Ukraina	15	13.166	Ukraina 2
Kanada	18	12.679	Bulgaria 2
Erresuma Batua	19	11.035	Taiwan 2
Txina	12	9.624	Iran 1
Suedia	10	9.399	Brasil 1
Espainia	8	7.727	Frantzia 1
Belgika	7	5.943	Finlandia 1
India	19	4.183	Pakistan 1
Txekiar Errepublika	6	3.686	AEB 1
Suitza	5	3.252	Argentina 1
Finlandia	4	2.721	Argentina 1
Bulgaria	2	1.906	
Brasil	2	1.901	
Hungaria	4	1.880	
Hegoafrika	2	1.842	
Eslovakia	4	1.760	
Mexiko	2	1.310	
Errumania	2	1.310	
Argentina	2	935	
Eslovenia	1	696	
Herbehereak	1	485	
Pakistan	2	400	
Armenia	1	176	

Zentral nuklearren eraiste faseak

LEHEN ETAPA

Lehenengo eta behin, erregaia, kontroleko barrak eta likido kutsatuak erretiratzen dira. Zirkuitu primarioari kutsaduraren aurka jarritako babes mantendu egin behar zaio eta nolabaiteko irekidura duten elementuak (balbulak, tapakiak, tutueria...) itxi behar dira, ondo zigilatu. Eraikina bere horretan mantendu behar da eta erradioaktibitate azterketak, alegia kontrol-neurri guztiak, pasatu beharko ditu, zentrala martxan balitz bazala.

BIGARREN ETAPA


Zirkuitu primario edo nagusiko babes sendotu behar da, itxierak areago itxi, normalki hesi berriak eraikiz. Hortik kanpo gelditzen denari erradioaktibitatea neurtzen zaio eta ematen duen mailaren arabera, garbitu, desmuntatu edota bere horretan utzi beharko da. Erradioaktibitatearen kontrola ez da aurreko fasean bezain zorrotz beteko, baina azterketak ezinbestekoak dira. Jakina, baita pertsonen gainekoak ere.

HIRUGARREN ETAPA


Zentrala osatu duten elementu guztiak desmuntatu eta desegin egin behar dira. Kutsadura garbitu ondoren, zentralak hartzen zuen orubea libre da.

Gaur ezagutzen ditugun zentralak inoiz hirugarren etapara helduko ote diren ikusteke dago. Izan ere, etapa batetik bestera pasatzeko urteak behar dira –kopurua, hondakinen erradioaktibitate mailaren arabera da–. Kasurik optimistenean 110 urte behar dira hirugarren etapara heltzeko. Nolanahi ere, ezinezkoa izango da orubearen lurra, geruza freatikoa eta ekosistema zein egoeratan izango diren aurreikustea.

Bestelako susmorik ere bada etapa hauei dagokienez. Izan ere, krisi ekonomikoak, energia nuklearraren gaineko ezezagutzak eta hondakin biltegi kopuru urriak zaildu egiten dute hirugarren etapa horren alde amestea.



Eraisketarako eragozpenak kontuan hartuta, zentral nuklearrak bere horretan hobiratzeko proposamena egin dute eskarmentu handiko zenbait zientzialarik.




gehien irauten duena baldin bada, Garoña guk itxiko dugu, baina hura izango da benetako irabazlea.

Arestian aipatu bezala, bete-betean harapatu gaituen krisi honen eraginez batez ere, itxi diren lantegiak eta saldu ezin izan diren etxe erdi-eraikiak gero eta egoera penagarriagoan ikusten ditugu. Zerbaitek produzitzeko balio ez badu, bertan behera uzten da, abandonatuta. Nola ziurtatu, beraz, Garoñako

hondakinek trataera egokia izatea? Nuclenorek edo Iberdrolak ordainduko dute, baldin eta argiagatik hilero ordaintzen dugun kuotan zentrala eraisteko zatia ordaintzen badugu, eta honenbestez gu geu izango gara eraisketa ordainduko dugunak. Gure osasun zerbitzuak edo erretreta ordaintzeko sistema zalantzan dagoen honetan, nola arraio joko ditugu ziurtzat, nola sinetsiko diegu zentrala eraisteko hartu beharreko lanak bete egingo

Kontuan hartu diren estrategiak



BEHERALAKO ERAISTEA


Zentrala desaktibatu ostean, erregaia azkar samar atera eta zenbait urteren bueltan zentrala osatzen zuten elementuak desmuntatzen hasten dira.

EPE ERTAINEKO ERAISTEA

Erregaia atera ondoren zentrala “egoera pasiboa” uzten da, ehun bat urtez geldirik, elementuen erradioaktibitatea makaldu zain. Ondoren, erradioaktibitate mailaren arabera beti ere, eraisketa dator.

IN SITU HILOBIRATZEA

Zentral nuklearra porlanez, harriz eta lurrez estaliko litzateke, haren gainean mendia osatu arte (irudian). Eraitsitako elementu erradioakti-



boak tratamendu zentroetara edo hondakintegi seguruetara garraiatzeak ekarriko lituzkeen eragozpenak izan zituzten gogoan, proposamen hau aurkeztu zutenean.

Aukera teorikoak dira hirurak ala hirurak, oraindik ez baita inoiz zentral nuklearrik fundamenduz itxi. Zenbait eraiste bidean dira, baina horien berri apenas zabaltzen da. Urriak dira datuak. Berehalako eraistek ez dira gertatu, erradioaktibitatearekin lan egiten duten laborategi txikietan ez bada. Datorren hamarkadan ehunka izango dira eraitsi beharrekoak eta une honetan ez da aski laborategi epe motzean pilatuko diren hondakin erradioaktibo horiek denak paraleloki tratatzeko. Laborategi berriak eraikitzea, garesti ez ezik, arazo ere bada, tokian tokiko biztanleek aurkako jarrera aktiboa hartzen baitute. Frantzia, kasura, gero eta argiago ageri da in situ hilobiratzearen aldeko postura.

Frantziako Estatuan datozen 25 urteetan 58 zentral nuklear eraitsi beharko dituztela kontuan hartuta, 30.000 milioi eurotik gorako gastua aurrekusi zuten François Lampérière eta Christian Ngò ikerlariek, eta erantsi, goranzko desbiderazioa ikaragarria izan daitekeela, ezin delako jakin zentral bakoitzaren egoera zehatza zein den. Halaber, aitortu zuten 600.000 m³-tik gorakoa izango litzatekeela hondakin kopurua, eta ez dagoela aski biltegiarik hori guztia hartzeko eta tratatzeko.

Proposatzen duten alternatibak %60-80 txikituko luke kostua eta 10-20 urtez besterik ez litzateke babestu beharko, erradiazio-maila epe horretan apalduko litzatekeela estimatzen delako. Ez dute baztertzen hilobi erraldoi horien kontrako keza azaltzen duten herriak konpentsazio ekonomikoaz limurtzea.

Itxura eman badezake ere, ezin liteke zientzialari malapartatu pare baten burutazio zorotzat hartu. Ziurrenik estrategia hau erabiliko da Txernobilen eta Fukushima, eta energia nuklearra baliatzen duten herrialdeetan ere kontuan hartu dute hipotesia. Besteak beste Espaniako Energia Nuklearraren Kontseiluak.

Hamarkada honetan ia 500 zentral nuklear izango dira martxan munduan, eta horietatik 200 bat, epe berean hasi beharko dute eraisten. 200 arazo larri, beraz, paraleloan


direnik? Arazo ekonomikoak tarteko, atzeratu egin dira Txernobileko zentralari jarri beharreko porlanezko esferari dagozkion

lanak. Eta Vandellos I-eko itxieran hiru urte-tik gorako desfasea daramate arazo tekniko, logistiko eta ekonomikoak direla kausa.

Hamarkada honetan, ia 500 zentral nuklear izango dira martxan munduan, eta horietatik 200, hamar urte hauek pasa baino lehen hasi beharko dute eraisten. Eraitsi beharreko zentralak gutxi batzuk izatea edota 200 izatea ez da berdina. Zergatik? 200 arazo potolo izango ditugulako paraleloan, eta krisi garaian. Hori

ZENTRAL NUKLEARREN ERAISTEA

Erradioaktibitateak gure gorputzean duen eragina



ez da ahuntzaren gauerdiko eztula. Koktel ikaragarri lehegarria da esku artean duguna. Zentral batzuk erakitze bidean dira, beste zenbait eraisteko zain, beste batzuek istripua ezagutu dute, eta hainbatekin ez dugu jakingo zer egin. Ez dago ihesbiderik. Garbi dago nuklearrak bizitza baldintzatuko duela datoen mendeetan.

Energia nuklearraren aldeko apustua egin duten zenbait estatu aberatsek zalantzan jarri dute orain arteko euren estrategia, Alemania eta Frantzia kasu. Beste batzuk, aldiz, indartu eta areagotu egingo dute. Esate baterako Txinak eta Japoniak (bai, Fukushimaoa gertatuta ere). Estimazio batzuen arabera, hogeitau bost mila zentral nuklearratik gora izan ditzakegu munduan, gaur dagoenaren bikoitza.

Zientziak ordea, aurrera egingo du, eta pentsatu nahi dut, halabeharrez, gure seme-alabek aurkituko dutela erradioaktibitatearekiko bizitza-oreka, baina zenbait belaunaldik minbizi orokorrari egin beharko diote aurre, horrekin bizitzen ikasi beharko dute. Lur erradiatuen eraginez, derrigorezko populazio migrazioak gertatuko dira eta sistema ekologiko osoak transformatu eta desagertuko dira. ■



EGIZUHARPIDETZA EGIOZUHARPIDETZA

Hego Euskal Herrian 145 € / Ipar Euskal Herrian 176 €

Izen-abizenak

Helbidea

Posta kodea Herria

Herrialdea

N.A./I.F.K.

Telefona

e-posta

Kontu zenbakia (20 digitu)

Ikasle bazara (unibertsitate / euskaltegi) edo Gazte Txartela baduzu %25eko deskontua harpidetzan.

943 37 15 45 · harpidetza@argia.com

Jaso lekuan
kobratu
SEILORIK EZ

argia

1-FD POSTA KUTXA
20160 LASARTE-ORIA
(GIPUZKOA)

TOLESTU

TOLESTU

TOLESTU

ERANTZUN KOMERTZIALA
Balmén zkia. 17352
(B.O.C. 22/99-06-02/koa)

PERTSONAIA


ALLANDE BOUTIN

«Hemen bizi eta ikusten ez gaituen jendearengana nola heldu pentsatu behar dugu»

“Mendian gora haritza, ahuntzak haitzetan dabilta...”.

| SUSTRAI COLINA |

Argazkiak: Dani Blanco



ALLANDE BOUTIN

Kazetaritzaren urak gerroz eta arreago ez ote datozen...

Euskarri eta tresneria berriek gure lanbidea eraldatu dute. Lehen eskolako maisuak bezalakoak ginen, albisteen behatzaileak. Prentsaurreko eta ikerketei esker jakiten genuena mahai gainean ezartzea zen gure lana, notiziaren eta gizartearen arteko bitartekaritza segurtatzea. Orain, iturriak biderkatu dira, denentzat eskuragarriago daude, eta hori arras sanoa iduritzen zaidan arren gure lanaren funtsa etengabe birpentsatzera garamatza. Gure kasuan bezala, egunean hitzordu bakarra izanik, gure ardura tratatuko duguna egoki hautatu eta galbahetik pasatzea da, esku artean daukagun gakoak jendeari ahal bezain zintzoki helaraztea. Arthur McCaig errealizatzaile iparramerikarrak ulertarazi zidan zintzoki lan egitea posible zela, objektiboki lan egitea ez. Eguneroko jaikitzen gara aldarte ezberdinez, bakoitzak daukagu gure iragana, gure kultura eta sentimenduekin bizi gara... Hasierako objektibotasuna kondentatuta dago. Horrek ez du esan nahi mundua zintzotasunez ulertzen saiatu behar ez garenik. Jendea oso heldua da, ez ezjakina. Frantziako kazetaritza eskoletan behin eta berriz tuntuntzat duten 50 urteko etxeko-andrea ez dut oraindik topatu. Ni emazte horiek anitzak, mires-tekoak eta errespetuzkoak direla sinetsita bizi naiz. Gure mundutxo hobeki ulertu eta ulertaraztea da gure lana, inor eta deus gutxietsi gabe.

Munduko berri etxepean gertatzen dena baino lehen iristen zaigun garaiotan, zer zentzu du tokiko kazetari izateak?

Tokiko kazetaritza da nire eguneroko ogia. Konbentziturata nago nire labetxoan ez dudala oraindik prestatu nezakeen ogi guztia prestatu. Oraindik ere herri honek ogia egiteko irin eta gari asko emanen digu Iparraldeko kazetariok. Txikia bezain aberatsa da gure eskualdea. Hemengo jendea ez da soluzioen beha zerura so dagoena, haien etorkizunaren jabe egin eta haien eskuekin geroa eraikitzeko asmoa dute. Ez diogu inori leziorik emanen, baina eredugarria da hemen gertatzen dena. Batzuentzat nazioarteko edo Parisko berriak jorratzea da kazetaritzaren maila gorena, baina nik gure etxepean gertatzen dena kontatzea ez daukat zokokeriatzat. Alderantziz, beti sortzen da zerbaite berria, beti harrapatzen nau amu berri batek. Gurea ez da inora ez garamatzen bide itsua, beste mundu askotara iristeko atea baizik.

Zure euskararako bidaian ere sentitu zenuen hori?

Normandian sortua eta Parisen hazi eta hezia izan arren, ama zuberotarra dut, eta udan aste pare bat pasatzen genituen amaren familiako etxaldean. 10 urterekin oso harreman bitxi nuen Zuberoarekin, ez nuen Zuberoarik gabeko oporrik idurikatzen. Ez nuen hitz erdi bat konprenitzen, baina behar bat zen Zuberoara joatea. Seigarren mailan, harro nengoen ama zuberotarra nuelako, eta pixkanaka bertako usadioei erreparatzen hasi eta hariak lotu ahala mundu horretan sartu nintzen. Terminalean nintzela, amaren osaba zendu zen,

sekulako tristezia eragin zidan, eta kate bat haustera zihoala sentitzen nuen. Amak eta bere ahizpek bazekiten euskara, baina gure familian azkenak ziren, eta “gurekin bukatuko da hau?” galdetzen nion etengabe nire buruari. Hutsune ikaragarria sortzen zidan katea haustek, eta nik bakarrik kate-begi bat eraikiko ez nuela jakin

arren, etenik egon ez zedin euskara ikasten hasi nintzen. Parisen, Txomin Peillenen eskutik ekin nion eta deskubritze izugarria izan zen. Euskal Etxean Iñaki Arrarte EGiko errefuxiatuarekin egin nuen topo, eta bi horiei esker euskara tripetatik ikasi nahi izan nuen. Bistakoa zen euskara ezin zela nire ama-hizkuntza izan, baina ez nuen beste edozein hizkuntza bezala ikasi nahi, ama-hizkuntza izateko gisan baizik. Arrotz sentitzen nintzen eta ez nuen arrotz izan nahi. Ez nuen euskararen itsasora frantsesaren portutik abiatu nahi. Pentsa, euskarari esker gerora gaztelera eta ingelesa beste modu batera ikasi, landu eta erabili ditut, askoz hobeki konprenitu ditut bakoitzaren berezkitasunak. Bitartean, gure aitak ez zuen ulertzen frantses petoa zen bere semeak zergatik izan nahi zuen euskaldun. Ez zegoen aurka, baina gogorra egiten zitzaion bestelako seme bat bilakatzen ari nintzela ikustea. Anitz lasaitu ninduen Imanol Larzabal abeslari eta adiski-

“Batzuentzat nazioarteko edo Parisko berriak jorratzea da kazetaritzaren maila gorena, baina nik gure etxepean gertatzen dena kontatzea ez daukat zokokeriatzat”

NORTASUN AGIRIA

Allande Boutin 1958ko urriaren 29an sortu zen Vernon-en (Frantzia). Parisen hazi eta hezia, Zuzenbidea eta Zientzia Politikoak ikasi zituen Sorbonan, eta Arthur McCaig errealizadorearen eskutik murgildu zen kazetaritzan. *Le Point*, *Le Monde*, TVE eta ETBrentzat lan egin ostean, France3-ko kazetari eta Txirrita emankizunaren arduraduna da egun, euskal prentsako ohiko kolaboratzailea izateaz gain.

deak bere garaian esandakoak: “Ez beldurtu eta esaiok aitari analisiak baino merkeago atera zaiola hi euskalduntzea!”. Arrazoi zuen, zerbaiten falta nuen, eta euskara ikasiz sendatu nintzen. Begira orain, euskaraz lan egiten dut, hemen bizi naiz, seme-alabak euskaldunak ditut... Amestu dut eta gertatu da.

Amestu ez zenuena France3-ko omiasainduko eta eguberriko bakantzetan zuen albistegia moztea da. Zer dago horren gibelean?

Lehenik eta behin krisi bat. Zer soluzio atxemanen dituzte euskarri tradizionalak eskaintza berri horiei aurre egiteko? Irratia indartu zenean prentsa idatzia fini zela komentatzen zen, telebista sortzean irrati eta egunkariak ez zutela zereginik... Baina hor daude. Horregatik aterabide bat asmatzea dagokigu. Nik uste hainbeste berri etengabe isurtzen diren garaiotan, hedabide tradizionalak, telebista barne, iturburuetara itzuliz salbatuko direla. Umil bezain kritikoa izan behar dugu, jendeari kasu egin eta errespetuz aritu, iturriak egiaztatu, berriak gurutzatu... Albistegiak notizia zurrunbiloan ez itozteko eta nazioarteko zein etxepekoa ulertzeko giltzak ematen dituzten erreflexio-gune eta analisi-aldiak izan behar dira. Bigarrenik, Frantziaren betiereko zentralitatearekin egiten dugu topo, eta gurea eskualdeen katea izan arren, guri dagozkigun erabakiak Parisen, Tolosan eta Bordelen hartzen dira. Krisi finantzario honetan, zerbitzu publikoak erabat ahaztuta eta egurtuta daude, eta borondate politikoaren arabera erantzuten den galdera agertzen da bidera: zerbitzu publikoa indartu nahi da ala krisia estakuru harturik behin betiko deuseztatu? Borondate politiko horrek Bordelen, Tolosan eta Parisen egon behar du, bestela errazena da gurea bezalako lan-guneak ixtea. Orain, teoriarik, sozialistekin zerbitzu publikoak babestuago beharko luke, baina momentuz ez dugu aldaketarik sumatu.



ALLANDE BOUTIN

Orotariko babes zabal eta anitza jaso duzue Iparraldeko eragileen partetik. Zer balio du babes horrek Parisen?

Iparraldeko gai politiko eta sozial anitzekin gelditzen zaigun zalantza da. Gutxi balio du, hain segur. Parisen ez gaituzte konprenitzen, urrundik begiratzen gaituzte, periferiaren periferiatzat gauzkate. Horrek lan egiteko autonomia handia ematen digu, meritu eta hobenak gureak dira, baina hain txikiak izanik ez gaituzte ikusten. Ez dut uste gure kontra deus daukatenik, fede txarrez ari direnik ere ez, haientzat ez gara existitzen eta kito. Baina jakina, ortzadar politiko guztiaz gain orotariko eragileek sostengatzen gaituztela ohartzean, zuzendaritza nardatzen da. Bordelekoek ulertu dute, Tolosakoa hastapenean gaitzitu da eta gerora gutun bat igorri digu orotariko babesak lana ongi egiten ari ginela erakusten zuela azpimarratuz. Kolore bakarreko sostengua lortu izan bagenu, gatibutza leporatuko ziguten, lerrokatzea, baina zorionez ez diegu horretarako aitzakiarik eman. Horrek asko animatu gaitu eta orain baieztatzen ahal dugu 2013an, Akitanian, ez dituztela gurea bezalako tokiko albistegiak itxiko. Ez da gutxi, eta mobilizazioari zor diogu.

Nola ulertzen duzu azkenaldian Iparraldean giltzarri diren gaien inguruan ortzadar politiko osoak, Parisko zuzendaritzekiko kontraesantatik gaindi, agertzen duen ia erabateko batasun hori?

1992an, orduko Paueko prefetak eta Baionako sub-prefetak bultzaturik, Euskal Herria 2010 izeneko ezohiko desmarta abiatu zen. Joxe Barne ministro sozialistak hainbat proposamen egin zizkien hemengo auzapezei, baina auzapezen gehiengo zabala eskuineko edo zentrista izaki, biziki erantzun hotza jaso zuen. Hori ikusirik, Joxek proposamen horiekin batera sosa bazutela eman zuen aditzera, baina Euskal Herrian nahi ez zute-

nez, Lorrainen inbertituko zutela. Hemengo auzapezek fite ulertu zuten hanka sartu zutela, eta hutsegitea konpontzeko ordura arte beti elkarriz bizkarra ematen ibiltzen zirenak mahai baten inguruan esertzen hasi ziren. Izotza hautsirrik, abertzaleek zituzten proiektu eta ideia zenbait ekologista, sozialista eta zentrista zenbaitek ulertu eta bere egin zituzten, Herrikoa onartu zen, ELB errekonozitu... Dinamika bat ezarri zen plantan eta 20 urte pasata emaitzak agertu dira. Bestalde, heien muga guztiekin, garen eta hautetsien kontseiluek heien bidea egin dute, ikasi dute lurralde bat kudeatzen, elkarrekin lan egiten, eta mugekin topo egitean, atzera pausorik onartu gabe gehiago eskatzen. Behin elkar ezaguturik parekoari ez diozu beldurrik, enpatia garatzen duzu, bestea lehiakide politikotzat daukazu, ez etsaitzat. Hauteskunde oro pasata hemengo eragile politikoek beti izan dute mahaian berriz eseri eta lanean segitzeko adorea. Lezio handia da hori.

Pitzatu-ezinak ziruditen hormak arrakalatu dituen lezioa.

Orain instituzio propioa edo autonomia aipatzea ez da tabu bat. Horri indarkeria bukatu dela gehitzen badiozu, zer aitzakia gelditzen zaie urteetan borroka armatua estakurutzat erabili dutenei? Frantziak beldur dio departamendu erdi bat baizik ordezkatzan ez duen territorio bati? Gaixoa Frantzia, orduan. Frantzia askoz azkarragoa da berez, ezin dio beldurrik izan Iparraldeari. Hala, Iparraldeak bere instituzio propioa izateko nahikunde bada zergatik ukatu, zeren izenean? Hori hala, dinamika horretan sartu diren UMPkoek, zentristek eta sozialistek, fede onekoak badira eutsiko diote heien posturari. Tinko diraute momentuz. Heien alderdiko jakobinoekin borrokatzea egokitu-ko zaie, eta Aturritik gora hemen gertatzen dena esplikatzea zaila bada ere, hemen gerta-

NAFARROAKO BERTSOLARI TXAPELKETA

13 ZIALA SARE SOZIALA

AZKEN-LAURDENAK

Otsailak 2: LIZARRA
17.30 - Gazteriaren Etxea

Otsailak 3: ALDATZ
17.30 - Herriko aretoa

Xabier Silveira
Josu Sanjurjo
Saioa Alkaiza
Eneko Fernandez
Xabier Maia
Erika Lagoma

Jon Barberena
Iñigo Olaetxea
Migel Mari Elozegi "Luze"
Patxi Castillo
Iker Gorosterrazu
Oskar Sanz de Acedo

www.nafarroakotxapelketa.com

Antolatzailea: 

Laguntzailea: 



AZKEN HITZA


Sukaldeko lana

“Sukaldeko lana isilean eta gordean egiten bada hobea. Kazetari batzuk supiztaile bezala aritu dira, behar ez zenean suari olio botaz, eta ardura gutxiarekin jokatu. Gauzak bizi ditugu, sentitzen ditugu, baina gero nola esan, nola kontatu, nola adierazi da gakoa. Horrelako gaietan hanka sartzea biziki arriskutsua da. Horregatik diot, sanoagoa dela sukaldeko lana politikariek egitea, kazetariak baino”.

tzen ari dena deigarria da oso. Nola azaldu bestela Aurore Martin askatzeko 15.000 euro istant batean lortu izana? Hemengo mobilizatzeko gaitasuna zinezko indarra da, ni hunkitzen nauena. Asmoak badira, ekiteko gaitasun ikaragarria dago, bidea urratzen ari da... Alabaina, hemen bizi eta ikusten ez gaituen jendearengana nola heldu pentsatu behar dugu. Nola interesatu eta inplikatu erretretara edo lanera etorri den kanpotarra? Nola bukatu jakobinismo horrekin? Abertzaleek eta Bateran finkatu diren eragile guztiek lana eta krisia aintzat hartzen dituzte, soluzio global bat, denen zerbitzurako herri bat eraikitzeko aukera, proposatzen dute. Hori da gakoa, eta agian horrekin Paris lasaituko da. Ez nuke ulertuko Paristik etengabe ezezkoa jasotzea.

Nola interpretatzen duzu orain arte bake prozesuan Frantziak izandako jokabidea?

Azken urteotan sekulako urratsak eman direlakoan nago. Orain bi urte pentsaezina zen egungo egoera. Baina Paris oso epel ikusten dut. Oraindik ere euskal gatazka Espainiako aferatzat du. Baina ez, Iparraldea Frantziako Estatuaren parte da, Frantziako Estatuan presoak daude, frantses nazionalitatea dutenak gatibu dauzkate Espainiako kartzeletan... Mandelak bakea etsaiekin egiten zela, ez lagunekin, azpimarratzen zuen beti, beraz goiz ala berant, Parisek keinuak egin eta auzi zenbait konpondu beharko ditu. Bitartean, keinu esanguratsuak ikusten ari gara. Ezker abertzaleak urrats garrantzitsuak eman ditu, Donostiako alkateak argi hitz egin du, Borja Semper-ek Bildu ez dela ETA eta hitz egiteko aukera zabaldu du, Gipuzkoako Aldundian ezker abertzaleak eta alderdi sozialistak aurrekontuak adostu dituzte... Emeki-emeki doaz gauzak, presoentzat eta heien seni-



deentzat mantsoegi, baina hori guztia irudika ezina zen oraintsu arte. Berriki irakurri dut Marixabel Lasak bere senarra erail zuen ETAkidearekin topaketa bat izan duela kartzelan. Arras hunkigarria iruditzen zait alde guztietatik. Marixabel Lasak lanean gorrotorik gabe aritzeko izan duen kemenak beti txunditu izan nau, eta ETAkide horrek urrats hori emateak inpresionatzen nau. Adiskidetzak eta baketzak oso luze joko du, baina sinesten dut hortik has daitekeela. Gerra baten ondotik beti da biziki zaila bakea egitea. Pentsa, nire bi aitatziek egin zuten Lehen Mundu Gerra, eta gazte-gazte nintzela ez zen igandetako bazkari bat pasatzen gerra hura aipatu gabe. Hori entzutean ni izutzen nintzen, alemaniarren beldur nintzen, beste gerla bat piztuko ote zen... 1918an bukatu zen gerra batek 1958an sortu naizen honi eragin badio, Euskal Herrian ere denbora anitz beharko dugu zauri guztiak sendatu eta mamuak oro uxatzeko. ■



VINCE JUARISTI

«Historia hau aitarena eta nirea da, baina zentzu askotan etorkin ororen historia ere bada»

Elko (Nevada) eta Bizkaia ditu bihotzean Vince Juaristik (1969). Aita, Joe, Lekeition jaio zen, baina Elkora joan eta han bizi da egun. Urtetan ikusi gabeko arreba bizkiarekin elkartzeko aita-semeak Euskal Herrira egindako bisita jaso du *Vincek Back to Bizkaia* liburuan (UNP, 2011).

| MONIKA MADINABEITIA |



Nevadan jaiotakoa zara, Elkon, baina Euskal Herriarekin lotura handia duzu.

Txikitatik izan dut harreman handia Euskal Herriarekin; Elko bera bezain gertukoa izan da beti. Aitona-amona eta osaba-izeben inguruan entzuten nuen sarri: askotan kontaktzen zen gure etxean aitaren haurtzaroa Lekeition edota nire amaren ama nola etorri zen Asartatik, Nafarroatik. Elkon ospatu behar zen Euskal Jaiari buruz ere entzuten nuen, eta bertako dantza, aizkolari eta harri-jasotzaileen inguruan. Hori baino ez nuen ezagutzen txikitik. Hori zen nire mundua. Gaztetan ezagutu, barneratu eta betiko mantentzen den harremana da.

Joe eta Vince Juaristi aita-semea Ipar Amerikako gailur altuenera egindako bidaiari, Alaskako McKinley mendian, 2006an.

Nolakoa izan zen gurasoen esperientzia AEBetara iritsi zirenean?

Aita 1948an etorri zen AEBetara, ama Rose aldiz hemen jaiotakoa da, bere ama Nafarroatik etorri zen, XIX. mende bukaeran. Aitak hainbat artzainendako egin zuen lan: sua egin, latatik jan, erreketan arrainak harrapatu eta zerupearan bizi zen. Gogor egiten zuen lan. Dirua aurreratzen saiatzen zen, diru gehiago egiteko asmoz. Urte batzuk geroago Elkora aldatu zen. Star Hotelean zerbitzari aritu zen, nahikoa diru auzagutu eta berau erosi zuen arte. Bertan ezagutu zuen nire ama. Star Hotela saldu, amarekin ezkondu eta BlueJay Bar taberna erosi zuten. Han zeudela jaio



Ezker-eskuin: Joe eta Anita bizkiak, Euskal Herrian elkartu ziren unean; eta Rose emaztearekin eta Lucy zakurrarekin.

nintzen ni. Gogoan ditut agure euskaldunak musean tabernako izkina batean. Amak txorizoa egin eta aitak garagardoa eta ardoa zerbitzatzen zituen egun eta gau. Tabernako azken bezeroak joan ondoren, lehertuta zeudela, taberna itxi, edalontziak eta mahaiak jaso eta taberna garbitzen zuten. Argiak itzali, ohera joan eta hurrengo egunean goiz jaiki behar izaten zuten berriz ekiteko. Ondoren artzain baserri txiki batera joan ginen bizitzera. Etorकिनaren esperientzia betidanik egin zait gogorra. Nire gurasoen esperientzia ez da Ameriketara etorritako beste etorkinenetik oso desberdina. Oso gogor egin zuten lan, amets amerikarrean sinesten zutelako. Amets horrek gogor ekitera bultzatzen zituen, etorkizun errazagoa eta oparagoa nahi zuten seme-alabentzat. Eta lortu zuten, nire ustez.

Orain gutxi aitarekin izan zinen Euskal Herrian.

Aita Euskal Herrira eramatea erabaki nuen bi arrazoiengatik; bata praktikoa eta bestea nostalgikoa. Aitak arreba bizkia zuen, Anita. Anitaren osasuna okerrera zihoala jakin nuen, joan behar genuela pentsatu nuen. Gure bisitaren ondoren hil zen Anita, urtebetera. Bestalde, aitaren arima elikatzea ere banuen helburu. Bere haurtzaroko jendea eta lekuak berriz ikustea nahi nuen, jaioterriko airea arnastea eta bizitzako gazi-gozoak gogoratzea. Batzuetan aita emozionatu eta barre eta negar egiten zuen, oroitzapen zaharrak gogora zetoziola. Arreba bizkia ikusi zuenean, hitzik gabe geratu ziren, isiltasunean, bien arteko begirada eta irribarre. Elkar besarkatu eta negar egin zuten. Horren purua izan zen momentua, nire memorian gelditu dela betiko.

Nola bizi izan zenuen bidaia hori?

Guraso batek onena nahi du seme-alabarentzat, eta alderantziz. Aitarekin izandako esperientziak bidaia bat osatzen du. Txikitatik entzun izan ditut kontuak, aitaren iraganeko-

ak eta jaioterrikoak, garai gogorretan jaiotzeari eta Ameriketara etortzeari buruz. Euskal Herrirako bidaia horretan aitak bere bizitzako bidaia borobildu du eta Euskal Herria begi berrikin ikusi. Seme bezala, nire bete-beharra zen bere bizitza-bidaia osatzea.

Nola bururatu zitzaizun bisita horretatik liburu bat idaztea?

Ez zen nire asmoa libururik idaztea. Bidaian aitak lo kuluxkak egin behar izaten zituen eta bitartean nik ikusitakoa, entzundakoa, ezagututakoa, sentitutakoa koaderno baten jaso nuen. Bizkaira bueltan beharrean, *Lo kuluxken artean* izan zitekeen liburuaren izenburua. AEBetara bueltatu nintzenean, apunteak txukundu nituen gordetzeko asmoz. Oroitzapenetan oinarrituta, ikusitakoa luzatu eta Elkon hazitako euskal hauraren historia berriak gehitu nituen. Laster osatu nuen *Back to Bizkaia* izango zenaren zirriborro mardula. Txikitako lagun bati erakutsi nion idatzitakoa –hau ere euskal semea– eta berak animatu ninduen argitaratzera. University of Nevada Press-ek segituan onartu zuen.

Ezagutzen duzu Robert Laxalt euskal-amerikar idazlearen *Sweet Promised Land*?

Bai, orain dela gutxi irakurri dut. Antzekotasunak daude bion lanaren artean; adibidez, aita-semearen historia, semea aitaren jaioterrian. Laxaltek aita haren jaioterrian ikusteko aukera izan zuen, nik neuk bezala. Halere, desberdintasunak gehiago dira. *Back to Bizkaia* Euskal Herrian eta Espainian kokatuta dago, baita Elkon ere. Aita eta bizkia elkartzen direnekoa du ildo nagusi, luzaroan bata bestearengandik bananduta egon diren bi pertsona. Aitarentzat ezagunak eta ezezagunak diren herrietara egindako bisitak ere kontatzen ditut, eta nire bizitzari buruzko kontuak: ardiekin lanean, Elkoko Euskal Jaia... Historia hau aitarena eta nirea da, baina zentzu askotan etorkin ororen historia ere bada.

VINCE JUARISTI

Nolakoa da zure harremana Euskal Herriko sendiekin?

Txikitan Gabonetan beti dei bat egiten genuen Euskal Herrira. Aitak arrebari deitzen zion. Telefonoa pasatzen zigun eta hitzen bat edo beste elkartrukatzen genuen arren, ez zen benetako komunikazioa. Aldiz, deia Euskal Herritik jasoz gero, bagenekien berri txarren bat zetorrela. Telefonoak jotzen zuenean amak erantzuten zuen normalean. Konexio eskasa zela-eta bolumenta igotzen zuen eta hizkuntzaz aldatu. Hortaz, berehalagenekien Euskal Herritik norbaitek deitu zuela. Ondoren, heriotza, istripu edo gaixotasun larriren baten berri izaten genuen. Horiek izan ziren urteetan izandako elkarrizketa txikiak, Facebook eta e-posta agertu arte. Ni lau bider egon naiz Euskal Herrian; aldiz, nik dakidala behintzat, nire sendiak ez dira oraindik AEBetan izan. Oso gustura hartuko nitzuke hemen!

Nongoa sentitzen zara?

Galdera zaila... Amerikarra naiz, euskal jatorriarekin. Ez naiz inoiz beste ezer sentitu. Baina amerikarrak arraroak gara zentzu horretan. Amerikarrak sentitzen gara. Gure herrialdearekiko lotura handia dugu, bandera, konstituzioa... Baina identitate pertsonalarekin ere badugu lotura, gure ahaideak etorri ziren herrialdeekin. Bi identitateak daramazagu, beti, edonon gaudela.

Euskarak zein presentzia du familian?

Gurasoek ingelesez hitz egiten zuten gu txikiak ginela. Elkarrizkeria zerbait pribatua esan nahi bazioten, gaztelaniara jotzen zuten. Aitak baino ez daki euskaraz, amaren aldetik inork ez zekien eta nik eta nire arrebekek beti hitz egiten ingelesez. Orain garbatuta nago ez dudalako euskara ikasi. Askotan pentsatzen

du ahalegin hori egin beharko nukeela, baina honez gero zaharregia naiz.

Hiru erataria erabiltzen du aitak euskara. Adibidez, matematikak egiteko edota kontuak botatzeko, atzamarrak mugitzen dituela, baxu-baxu, bat, bi, hiru, lau, bost... entzuten zaio. Bere belaualdiko euskaldunekin ere euskaraz egiten du. Nire aita-pontekoa Biarritzeko zen eta askotan etortzen zen etxera bisitan. Biak ezin isildu egoten ziren. Aitak mus eta arrantzaren inguruan asko hitz egiten du. Bere garaiko beste gizonekin elkartzen

denean seguitan hasten da euskaraz. Guztientzat harrotasun eta poztasun ikurra da euskaraz hitz egitea eta euskara entzutea. Azkenik, aitak biraoak beti euskaraz esan ditu. Ez dugu euskara ulertu beharrik jakiteko aita haserre dagoela.

“Aitak biraoak beti euskaraz esan ditu. Ez dugu euskara ulertu beharrik jakiteko aita haserre dagoela”

Nola ikusten duzu euskal komunitatea AEBetan, batez ere mendebaldean?

Bi zatitan dago banatuta. Alde batetik edade-tutako gizon eta emakumeak daude, nire aita bezala. Euskal Herritik etorri ziren Bigarren Mundu Gerraren ostean lana bilatzeko asmoz. Txapela daramate, ardoa edan eta musean aritzen dira; euskaraz hitz egiten dute, edo oinarritzko ingelesa. Gogorrek dira, gogor egin behar izan dute lan. Dirua aurreztu zuten eta orain ere horrela egiten dute. Beste taldea izango litzateke lehen belaunaldi horren fruitua: 1960-70eko hamarkadetan jaio, AEBetan eskolatu eta gurasoengandik lana gogor egiteko eta finantzatarako zentzu ona jaso dutenak; amerikar jaioterria besarkatu dutenak, unibertsitatera joan, gogor lan egin eta aukerak aprobetxatu bizitzan aurrera egiteko, baina haien arbasoek oso kontziente dira. Basoak dira, bai, sustraiak omentzen dituzte eta ez dituzte ahazten aita-amen sakrifizioak. ■



ZIO ● ZIENTZIA
● IRAKURLE
● ORORENTZAT

Euskal Herriko Unibertsitateko Euskara Zerbitzuak 2003an abiarazitako ekimena da ZIO (Zientzia Irakurle Orentzat). Bizkaiko Foru Aldundiaren laguntzari esker urterik urte osatuz doa ZIO bilduma. Zientziara hurbiltzeko liburu erakargarri eta erabilgarriak eskainiz, euskara eta jakintza uztarturik jartzen dira edonoren esku.

gure artean euskaraz

Universidad del País Vasco Euskal Herriko Unibertsitatea

BFA DFB Bizkaiko Foru Aldundia Diputación Foral de Bizkaia

BIZKAIA BIZKAIA

ZUMETAren lan-grafiko originala

ARGIArentzat egina

Jose Luis Zumeta egileak eskuz sinatutakoa



Lehen ~~160~~€

Orain!

99€

- Edizio limitatua
- Testura bereziko paper naturalean egina
- 500x400 mm.



MADDI SOROA

**Baleren
Bakaikoa
Azurmendi**

♦
EHUKO
IRAKASLEA,
EKONOMIALARIA

Krisialdi honi aurre egiteko estrategia baikorragoa

2000. URTEAN Europako Kontseiluak Lisboako Akordioa onetsi zuen. Akordio honen arabera, 2010erako Europako Batasunak AEBetako eta Japoniako ekonomiak harrapatu behar zituen. Horretarako, beste betekizun batzuen artean, lau helburu azpimarratu zituzten: 1. I+G+b-ko gastuak (inbertsioak dira) BPGren %3ra heltzea. 2. Gizonezkoen populazio aktiboa %70 izatea eta emakumeena %60. 3. Enplegu betea 2010erako (sic). Eta 4. Batez besteko urteroko hazkunde tasa %3ra hurbiltzea. Orain, helburu horiek 2020ra atzeratu dira.

Jadanik 2008ra iritsi aurretik helburu horiek porrot egin zuten eta okertu finantza krisiarengatik. Eta geroztik egoera txartu egin da, batik bat Espainiako Estatuan non aurrekontuen ia laurdena finantza erakundeetara doan, hain zuzen 2013an 40 mila milioi inguru izango dira. Geratzen den diru kopurua, txikiagoa denez, hezkuntzak eta osasungintzak pairatuko dituzte murrizketak, beste hainbat

enpresari askok duela 40 urte pentsatzen zutenarekin, alegia, “amerikarrak asma ditzatela, guk patenteak erosi eta martxan jarriko ditugulako”. Lehiatzeko ikertu egin behar da, ez soldatak murriztu.

Bestalde, epe luzeko krisialdiari aurre egiteko, Kondratieff-en zikloan alegia, industrian aldaketa erraldoiak gauzatu behar dira eta horretarako asmakizunak praktikan ezarri. Hau guztia ikerketarekin lotuta dago eta enpresari iaioak behar dira, ikerkuntza berriak indarrean jarriko dituztenak.

Baina beldur naiz ez ote garen berriro aipatu menpekotasun horretan eroriko. Izan ere, aurreko hamarkadako lehen urtetan zenbait urrats positibo eman ondoren, atzera bidea egiten ari baikara. Oro har, Espainian azken bi urteetan, I+G+b-ko gastuak %31 urritu dira, 2010ean gastu hauek bere gailurra ezagutu ondoren: BPGren %1,39. Hurrengo urtean, 2011n, %1,33. Bien bitartean gastu horiek EAEn %2,08 eta 2,04 izan ziren, hurrenez hurren, EBkoaren gainetik. Hala ere, ez gaude kanpaiak jotzeko moduan, 2000. urtean finkatutako helburutik oso urrun baikaude, are urrutiago AEB, Japonia eta Suediarekin alderatzen bagara non gastu horiek %2,87, 3,36 eta 3,37 diren.

Honen guztiaren ondorioak zeintzuk izango dira? Jadanik begi-bistakoa da: emigrazioa. Gazte kualifikatuek ez dute lanik aurkitzen eta herrialde aurreratueta- ra doaz. Hemengo diru publikoarekin prestatu dira eta etekina kanpoan utziko dute. Gazte horiez gain, prestakuntza apalekoek ere emigratu beharko dute, eskulan merkeko merkatua osatuko dute eta gaur egun Afrika eta Hego Amerikako etorkin askoren lanpostuak beteko dituzte Europako herrialde aberatsenetan, AEBetan, Kanadan edo Australian ez bada.

Beraz, egoera hau itzuli nahi badugu, zenbait errezeta egon badaude. Gure agintari eta enpresari arduratsuagoen esku dago norabide baikorragoari heltzea. ■

Nahikoa frogatuta dago herrialde batek aurrera egin nahi badu eta lehiakorra izan, gupidarik gabeko sistema kapitalista honetan, ikerketan aitzindari izan behar duela. Teknologia eta ekoizpen prozesuak kopiatuta oso aurrera joaterik ez dago

gizarte gastuk ezagutuko dituzten bezala. Aipatu murrizketa horien ondorioz, eskola uzteak areagotu egingo dira eta pertsona ugari, batik bat adinekoek eta gaixoek, ezin izango dute osasun sistemaz behar adina profitatu.

Nahikoa frogatuta dago herrialde batek aurrera egin nahi badu eta lehiakorra izan, gupidarik gabeko sistema kapitalista honetan, ikerketan aitzindari izan behar duela. Teknologia eta ekoizpen prozesuak kopiatuta oso aurrera joaterik ez dago. Goi mailan egoteko asmakuntzak oinarritzkoak dira. Ezin daiteke ibili euskal





Can-can



12. DANTZA BIXIA BEZAIN ESKANDALAGARRIA



DANI BLANCO

Iñaki Odriozola

IRAKASLEA ◆

Trukearen mitoa

GURE EKONOMIAREN oinarri indartsuenetakoa trukea da. Dirua –trukearen artekarari famatuena– izanez gero, edozer sal/eros daiteke: ondasunak deitzen direnak, baina, baita ere “txartasunak”. Diruarekin sal/erosten dira gorputzak, emakumeenak batez ere; armak, herriak suntsitzeko erabiltzen direnak; plazerak, errealitatea desitxuratzeko balio duten drogak; osasuna, farmazeutikatik kontrolatzen baitira sendagaiak; eta bizitzak, batzuek erailez lortutako gorputz atalak ere sal/erosten baitira.

Diruarekin sal/erosten dira borondateak, intentzioak, balioak, eta helburuak; boterea, sinesmenak, gizabanakoa eta herriak. Dirua bera ere, eros daiteke, erosi. Eta txarrena, diruarekin erosten da lan indarra, langilearen izerdia trukeerako merkantzia bihurtuaz, gizakien arteko menpekotasuna, eta gehiengoaren zapalketa, iraunkortuz.

Jendarte honek, izan ere, eremu itxi eta bakar batean jokatzera behartzen gaitu: trukearen eremuan. Hemen dena ekoizten dugu, ez behar dugulako, trukea egin eta kapitala gehitzeko baizik. Erokeria hutsa, baina sakonki errotuta daukaguna.

Edonori honi buruz galdetuz gero, esango digu zerbait sobera daukagunean, bestearengana joan, eta ez daukagun zerbaitetik trukatu egiten dugula, ezinbestean; eta horrela, gainera, bi aldeek onura ateratzen dutela. Barne-barnetik sinetsi izan dugu trukea

gizakiaren izaerari dagokion zerbait dela, ia-ia biologikoki edo genetikoki dagokiguna.

Gezur potoloa da hori, noski, ipuin hutsa, eta aldi berean, dagoen sistema ekonomikoari babesa ematen dion ideia gaiztoa (irakur David Graeber). Zerbait soberan daukagunean, gure joera ez da hori trukatzeari, ingurukoei banatzea, gordetzea edo botatzea

baizik. Eta zerbait falta bazaigu, daukagunarekin konformatzea da gure joera, eta ez, falta zaigun hori, daukagun beste zerbaiten trukean, derrigorrez, lortzea.

Trukaketa jokaera hausnartu eta elaboratuegia da oinarritzkoa izateko, eta esango nuke, historian zehar, boteredunek, produkzio bideak kontrolpean izan dituztenek, indarrez behartu gaituztela horretara, eurak aberasteko, eta gu menpean hartzeko, trukean kateaturik. Gero, egoera babesteko, mitoak sortu dituzte, trukearena, esaterako, eta guk, inozoak, sinetsi.

Hori horrela, gure jendartea hobetze aldera, nik proposatuko nukeena zera da, ahalik eta giza eremu gehien trukearen beharretik aldentzea, jendartea dimentsio-bakartasun horretatik askatzeko. Truketik kanpoko espazioak sortu behar ditugu, sistematikoki, beste modu bateko antolakuntzari tokia eginez, eremu hori gradualki, ito arte.

Agian gehiegixto, otu zait bigarren aldiz irakurri dudanean. Urrutiegi joan ote naiz? ■



Hemen dena ekoizten dugu, ez behar dugulako, trukea egin eta kapitala gehitzeko baizik. Erokeria hutsa, baina sakonki errotuta daukaguna

DANI BLANCO



Itxaro Borda



IDAZLEA

Ohoinkratak

OKITUEK ez dute beste ametsik: diru eta egitura publikoak muineraino zurgatzea eta atzerrietara ernatzea, maletak besapean, exiliatu fiskal estatutua eskatzeko. Errusiako Putinek pasaporteak eskaini dio Depardieuri eta Mordaviako kultura ministro bihurtu daiteke nahi badu. Sosa diktatura zabarrenarekin erraz akomodatzen dela ederki frogatzen da berriz.

Eta gure enpresaburuek, batzuk herri gotorretako auzapez direla, ohartu gabeen arauz, CAC 40eko aho-zabalen diskurtsoa errepikatzen digute: askoz zerga gutxiago ordaindu dezatela “zerbait egiten” dutenek eta oroz bat lanaren gas-

tuak errumaniar zein txinatar langileen neurriera apaldu daitezela: behargin alferrek berrehun euroko soldata askitto dute! Euskaldun etxeko jaun zintzo eta suhar ohien artean esklabagista distiratsuak kausitzen direla onartzekoa dugu.

Hobe ikusi dut oraino txat gune batean: aberatsenak biktima gisa aurkezten zituenak zioen RSA, RMI, eritasun-sariak eta SMIC delakoa ukitzen duten baliatzaileek behar luketela zerga nazkagarri hori zakutik edo zorotik pagatu hilabetean hamar ardit baizik ez baldin bada ere! ■





Jose Inazio Basterretxea

◆ EHUko IRAKASLEA, IDAZLEA

Euskal Telebista: has gaitezen, berriro

Itsasoan, itsasontziak; zeruan... Trenean entzunda, urtarril berri honetan –azterketatik bueltan, lau neskatila, logikaren ariketa elkarri komentatzen–. Segitu dute neskatilek: “Eran-tzuna asmatzeko, deduzitu beharra dago”. Deduzitu, zer baina? “Aurrekariak ikusita, esaldia norantz doan...”.

ETB, ARRAKASTA HAUTSI BATEN LORRATZA. Kontu jakina da hogeita hamar urte egin berri dituela Euskal Telebistak. Gutako batzuentzat, Olentzerok ekarritako opari eta eskola izan zen: egundokoa bere unean. Beste batzuentzat, ordea, betidanik dago hor: ez da ezelako opari ezta eskola ere.

Hogeita hamar urteotan, zuria bezala, arrasto beltza ere utzi du Euskal Telebistak bere atzean. Horretan, ETBk ezer lortu baldin badu, hori izan da euskararen lehen diaspora telebisiboa sortzea eta urtez urte hura handitzen joatea. Nekatu eta nardatu egin du euskararen komunitatea, erabat.

Olentzerok ekarri zigunean, begiei eutsi ezinik ikusi genuen pantaila euskaraz mintzo zitzaigula. Baina, polboroiak ahoan beste iraun zigun pozak bihotzean: telebista publikoak ezarritako politika-eredu itxiak eta itsuak medio. Eta erdara, erdara indartsua ekarri zigun ETBk, eta erdara horrek berak ahuldu du komunikazio-entresa publikoaren euskarazko eskaintza.

ETBn agindu duenak agindu du pentsatuz gobernatzen ari zela bere jostailua –propioa–. Eta ez. Zuk eta denok –euskaldunok barne– erosi eta ordaindutako tresna komunikatiboa zen (da).

BADA GARAIK KONTUAK BIDERATZEN HASTEKO. Ziklo politikoaren aldaketa datorrela diote batzuek. Krisi ekonomikoaren atzaparkada odoltsua dastatu behar omen dugula, beste batzuek... Etorkizuna, ikuski-zun.

Testuinguru konplexu eta, era berean, ireki horretan gaudela, inork pentsatu al du badela euskarazko komunikazio-esparru bat atoi-ontzi bila dagoena?

Inork pentsatu al du badela sinergia potentzial interesgarri bat euskarazko komunikazio-esparruaren baitan –agian, handiago bezeroen eta langileen artean, enpresen artean baino–?

Inork pentsatu al du telebista publikoak duen erakargarritasun handiena dela den denontzat irekia izatea? Halako moldez irekia, non gobernuarena baino oposizioarena dela ematen duen.

Inork pentsatu al du hurkoari harrika baino, jolasgarriagoa dela harekin soka-saltoan aritzea?

“Deduzitu”, esan zezakeen treneko neskatiletakoren batek... Edo, “hauts zaharretatik ikasi”. ■



BERTSO BERRIAK

Krisia



ALBERTO ELOSEGI

Imanol Lazkano



Doinua: Aita izena.

Bankua dut nik nire aita ta kapitala nire ama garai batean izan zutenak ikaragarriko fama zerbait iluntzen hasi zenean ordura arteko xarma maitasunik ez izan arren ni sortzea zuten asma ni izan nadin beren babes ta herri xumearen zama.

Ezinbesteko legea zenez bataioaren grazia izen bat ere jarri behar da jarri zidaten krisia bertan txertatuz odol gaizto ta gurasoen malizia gogoko ditut herri xehearen ezina ta gabezia saiatu ohi naiz garratzaratzen gozoa zaien guztia.

Hutsa guraso bihotz gabeak arduratuko balira ni hemen utziz aldegin zuten beraien oporraldira ziur handikan harro daudela nire ekintzei begira. Gero hau dena jaitsitakoan gustatzen zaien neurri denok dakigu, lehenago bezain oilar azalduko dira. ■



Beñat Sarasola

♦ IDAZLEA



ZALDI ERO

Antzaratik antzarara

BIKTIMEN AHANZTURA, beste aldera begiratzea, krimenaren aurrean *La Donna è mobile* txistu jo eta enparaei dagokionez, kofradia bakoitzak bere modalitate propioa du. Norberaren burua justifikatzeko aitzakiak askotarikoak izan ohi dira, aitzakiagintza antze aski garatua baita, zurikeriak beti du kausa hotsandikoren bat bidelagun.

Ez dakit oraindik gogoan izango duzuen, baina mende berriaren hastapenetan terrorismoaren kontrako borrokaren izenean jazo lotsagarrikeria eta bidegabekeriak zabor bonuaren mailan zeuden protesta politikoei zegokienez. ETAk norbait hil eta justifikazioa zein zen zalantza egiten zelarik *“algo habrá hecho”* hori antiterroristen kofradietara igarota zen. Gauerdian etxeko ate nagusiaren kontra Guardia Zibilak jo kolpeen ondoko hamazazpi, hogeit, hogeita bi urteko gaztearen patua nori, zein herritar eredugarri, axola zitzaion? Gero atxilotuak torturak salatzen bazituen hor zegoen prest terroristaren manualaren ukendua norbere buruari sentsarazteko dena gezurra zela; eta edonola ere, egunkariak zioenaren arabera ez dakit zenbat kutxazain, autobus, Casa del Pueblo erre eta ez dakit zenbat zinegotzi, kazetariren kontrako ez dakit zenbat etxeko lehergailu ipiniak zituela. Edonola ere? Zenbat *“edonola ere”* behar dira zikinzeria morala estaltzeko? Zenbat *“algo habrá hecho”*?

Donostian ia belaunaldi oso bat inausi zen antzaratik antzarara, *“edonola ere”* tik *“algo habrá hecho”* ra. Galdetzen duzu, non ote lagun hura, urtetan Alde Zaharreko tabernetatik ikusi ez duzuna? Bat kartzelan dagoela, bestea inkomunikaturik igarotako egunen ondoren depresioak jo eta beste norabait joan dela bizitzera, beste hura ihesean dela haren bila joan zirenetik... Nori axola izan zaio hori guztia? Zein giza-esku-


bideen defendatzaile? Zenbat atentatu baliatu izan ditugu zegokigun lekuan ez egoteko? Zenbat baldintza jarri? Zenbat baina... erabili?

Gazte horietako bat da Markel Ormazabal, zeina artikulua idazten ari naizela presondegian den baina argitaratzerako, ondobidean, kalean izango den. Auzitegi Nazionaletik (hiru urte eta erdiko eskaera) Auzitegi Gorenera (sei urteko eskaera), antzaratik antzarara, sei urte igaro ditu espetxean, zigorraren murrizketa txikienarik gabe. Delitua, Jarrai-Haika-Segi-ko kide izatea, eta hala, antzaratik antzarara, ETako kide izatea. Ez dut lagunkeriagatik aipatzen hau guztia, pasadan ez bada, uste baitut ez dudala sekula Markelekin hitzik gurutzatu. Baina hala ere, ezin dut ekidin pentsatzea zeinen llaburra den bien arteko aldea. Hainbat adiskide ditugu kideko –horietako batzuk kasik errepidean geratu zirenak bisita batera zihoazela–, Alde Zaharreko kale berberetan maiztuta-

koak gara, musika zalea –zalea ez ezik, musikaria ere bai, Adikune taldean–, eta ezagun denez *Irutxuloko Hitzan*-eta argitaratutako bere artikulua irakurrita, baita literatur zale fina ere. Zeinen llaburra, eta era berean, zeinen handia bien arteko aldea. Gurutze-bide judizial bat, sei urteko bakartze eta terrorista etiketa baten aldea, besteak beste. Sei San Sebastian egun, Sei Abordaia, sei Irrikitaldi.

Baiki, kasu hori beste hainbaten arteko bat baino ez da. Honakoa ez da inor santutzeko saiakera, hainbat desmasia lazarri gogoratzekoa baizik. Edonola ere, egongo da oraindik *“algo habrá hecho”* ka ibiliko denik. Norberak goberna ditzala, albait zintzotasun handienez,

bere *“edonola ere”* ak, norbere kontraesan, lotsariak. Antzaratik antzarara. *“Algo no habremos hecho”*. ■



Antton Olariaga



TXIMINI KOLEKTIBOAREN KEA FILM LABURRA


Arkitektura industrialari gorazarre

Tximini Kolektiboak 2010eko udan ekin zion bideari, Ibai Etxezarragak eta Beñat Guarrotxenak arkitektura ikasketaren amaierako proiektuari heldu ziotenean. Beraien asmoa birgaitze industrialean murgiltzea zen, eta Sefanitroko fabrikaren inguruneak erakarri zituen. Nerbioi ibaiaren ezkerrean dago, Lutxanan (Barakaldo). Hainbat ate jo eta gero, fabrikako eguneroko bizitza gertutik ezagutzeko gonbitea jaso zuten. 2012an eraitsi zuten eraikina, baina Tximini Kolektiboak Kea film laburrean jaso du esperientzia.


| MYRIAM GARZIA |
Argazkiak: Tximini Kolektiboa

LEHENENGOZ Sefanitro fabrikara hurbildu zirenean, 2000 urteko eraiketaren ondorioz 1942an eraikitako fabrikaren aztarnak eta 2012 urtera arte martxan jarraituko zuen fabrika zatia ikus zitezkeen lursail berean. Desulfurazio fabrika berria 1986an eraiki

zen, bestearen gainean, nolabait, eta erabilera berri batera egokitu ziren. Itsasadarrarekin kontaktuan eta Lutxana auzoaren aurrez aurre zegoelako erakarri zituen Ibai Etxezarraga eta Beñat Guarrotxena, Tximini Kolektiboko sortzaileak.



Sefanitroko pirita biltegi zaharraren eraistea, 2011ko abuztuaren 11n.



Goian ezkerrean, Befesa Desulfuración enpresaren instalazioak, itsasadarretik begiratuta. Orconera Iron One enpresako egurrezko zamatokien aztarnak agertzen dira. Ondoan, paisaia bera gauzez. Tximinia zutik ikusteko azken aukera izan zen. Ordu batzuen buruan eraitsi zuten (2011-11-18).

Artzai Ona kaleak banatzen ditu Lutxana auzoa eta lantegia. Fabrikaren eraistea 2012rako aurreikusita izateak ideia, asmo eta helburuak hankaz gora jarri zizkien, baina aukera ezin hobea iruditu zitzairen. Fabrika bertatik bertara aztertzeo aukerak erakarri zituen, funtzionatzen ikusteak, hil artean jarraitu ahal izateak, langileekin egunero elkartzeko aukerak. Neurri handi batean bertako langile bihurtu ziren bi arkitektoak ere.

Tximinia, sinboloa baino gehiago

Befesa Desulfuración enpresaren eraisketaren lehen pausoak 2011ko maiatzean eman ziren. Besteak beste zinta garraiatzaileak, uralitazko itxitura, estalkiak eta makinaren bat desmuntatu zituzten. Abuztuaren erdialdera, eraispn-makinak fabrikako lursailetan sartu eta lanari ekin zioten. Sefanitroko parte izandako pirita biltegitik hasi ziren.

Befesa Desulfuración enpresako langileen talde argazkia.

2011ko azaroaren 17an, 18:40ean, Befesako tximiniaren lehen zatia erori zen. Lehengaita zakuratzeko dorreak eta 17. azpiestazio elektrikoak, berriz, 2012ko udara arte iraun zuten zutik. Gaur egun itsasadarretera heltzen den zamatokia besterik ez da gelditzen. Ez du luze iraungo.

Kea film laburrak eraiste honen historia laburbiltzen du, eta bereziki, Befesako tximinia erortzen den unea jasotzen du. “Kea denon artean eta denontzat izan den proiektu baten historia da, elkarlan zintzo eta saiatu baten historia. Gure iragan hurbila eta protagonista izan dituen pertsonak omentzeko modua da, arkitektura industrialari gorazare”, azaldu digute Tximini Kolektibokoek.

Lara Izagirreraren zuzendaritzapean eta Ibai Etkezarragaren eta Beñat Guarrotxenaren gidoiarekin egin den film laburra mutua dugu *Kea*. 15 minutuko iraupenean lantegiaren



2011ko azaroaren 26an, Lutzana eta Llanoko auzotarrekin batera antolatutako bidaia, itsasadarrean.



Elektrizitate arloko langileak, beren postuan.



Enpresako artxibategia antolatzeko ahaleginetan.



zaratak baino ez dira entzuten. Eraisteko zorian den eraikin bati hartu zaion afektua, edo nostalgia prebentiboa, edota memoria mantentzeko erantzukizuna islatzen du. Estetika industrial giza eboluzioaren gailurtzat jotzen da, baita planetaren hondamenaren arrazoi nagusitzat ere.

Auzokideak eta batik bat Sefanitroko eta Befesako langileak dira filmaren atzean dauden pertsonak. Lantegiaren eraistek batu eta banatu egin ditu Lutzana auzoko biztanleak. Azken finean, Etxazarragak eta Guarrotxek dioten bezala, estetika industrial jada

Ezkerrean, Kea film laburreko lan taldea.

Eskuinean, Llanoko Munoa ikastolako haurrek egindako marrazkietako bat.

“huts” hau ezin uler daiteke atzean dituen istorio humanoak gabe. Horregatik, espazio hauen berreskurapena aldarrikatzen dute Tximini Kolektibotik, Europako beste herrialde batzuetan egin den bezala. Alemaniako Ruhr ibaiaren ertzeetako zonalde industrial jartzen dute horren eredu. “Ondare industrial ez da ondare izango, norbaitek horren balioaz ohartarazi arte.

Artearen historiaren parte garrantzitsua da estetika industrial. Bere horretan errespetatu, landu eta ikertu behar da”.





Helduen literatura | NARRAZIOAK

Alter Ero
Bertol Arrieta
Susa, 2012

Ispiluan den *beste ni-a*

IZUGARRI GUSTURA irakurri dut Bertol Arrietaren *Alter Ero* narrazio liburua. Arin irakurtzen diren zortzi ipuin laburretan pertsonaia maskulino bana topatzen dugu betiko errealtatean txertatuta. Hala eta guztiz ere, bada errutina horretan pertsonaiek erakusten duten egiteko modu berezi bat, errealtate arruntenetan aurkitzen dena baina besteengan ikusten ez dugun arte, harrapatzeko zail xamar suerta datekeena. Ispiluaren metodoa inkontzienteaz kontziente izateko metodo ezin hobea iruditzen zait.


Hari narratibo landugabeegiak eta idazkera sinpleegia izan arren, ene ustez, guztiongan bizi den Alter Ero inkontziente hura biziki ondo islatzen jakitetik abiatzen da Arrietaren gaitasuna. Horrek pentsatzera eraman nau Arrieta bera ez ote den sekula psikoanalisian aritu. Ez erotasunagatik, terapia psikoanalitikoaren defendatzaile sutsua nauzue, baizik eta errealtatea perzibitzeko modu eta perspektiba berezi batetik idazten jakin duelako.

Narrazio gehienetan ageri diren pertsonaiek neurotiko obsesibotzat har daitezke: *Ipuin perfektua* idatzi nahi duen narrazio horretako pertsonaia, *Un tal Ekain* izena duen ipuin bereko pertsonaia, bere burua Cortazarren oinordekotzat daukana, edota *Laurak eta hodei* ipuineko pertsonaia, erlojuetan orratz handiak etengabe irentsi baitu txikia!

Arrietak, baina, ez ditu horrela tratatzen. Egiten dutena deskribatzera mugatzen da, oso arruntak diren egoeratan txertatuz, halakoxea baita egunerokotasuna, eta bizitza, azken finean. Baina hain da arrunta, askotan begirada lanbrotu egiten zaigula, eta gure beldurrez, obsesio eta frustrazioez ohitura egiten dugu, *stand-by* egoeran (ipuin baten izenburuaren antzera) geratzeraino. Denbora beti bera, bizitzaz aldatu nahia eta ezin (ausartu ez?), iraganeko frustrazioen arantzak erauzi nahia (zenbat dira ikasketa unibertsitariok, gurasoen influentziak bultzaturik egin dituztenak?), egonkortasunari *Bye* esateari panikoa, zenbait profesiotan dauden obsesio perfektzionisten azaleratzea (idazlearen inspirazioa versus teknika); nor ez da luzez ezerezari begira geratu, inspirazioa noiz iritsiko den zain? Edo, idazteari ekin aurretik milaka liburu irentsi behar dugunaren obsesioa nork ez du inoiz ukan? *Ipuin perfektuko* pertsonaiek panikoa dio idazlearen profesioari.

Bertol Arrietak narrazio liburu interesagarria eskaintzen jakin digu. Gure izakeraz (izanaz?) hausnartzeko eskuliburu gisa eta, espresioa onartzen badidazue, etxetik ibiltzeko dosi psikoanalitiko ttipi moduan hauteman dut nik. Guztiz gomendagarria. ■

Saioa Ruiz Gonzalez



Nabokov estreinakoz euskaraz, Armiarman

JASONE LARRINAGAREN itzulpenari esker irakur dezakegu Armiarma.com webgunean Vladimir Nabokovek Euskal Herrian kokatu zuen ipuina, *Leben amodioa*. Jakina da Nabokov birritan izan zela Miarritzen udako oporretan, 1907an lehenbizi eta 1909an bigarren aldiz, eta bigarren bisita horrek eragindako liluraren gainean eraikitako narrazioa da. Autobiografikotik asko duen istorioa *The New Yorker* aldizkariak 1948an argitaratu zuen estreinakoz.

Narratzaile heldu batek haurtzaroko une batez egiten duen berrirakurketa hau hiru ataletan banatuta dago: lehenak San Petersburgotik Parisera egindako tren bidaiak kontatzen du, ameskeriaz baina iragana erabat idealizatu gabe –jatetxe-bagoian zeuden txokolate-tableta faltsuak aipatzen ditu, adibidez–. Bigarrenak udatiarren eta bainulari profesionalen –“euskaldun gihartsuak bainujantzi beltzekin” –ko dro kostunbrista suete bat osatzen du; eta euskarari buruz ere zerbait aipatzen du, butterfly hitza misericoletea esaten dela aipatuz. Colette du izena hain zuzen hirugarren ataleko protagonistak: asturu txarreko haur bat da, narratzaileari lehenbizikoz maitemina sentiarazten diona –“Colette ezagutu nuenean, berehala jakin nuen hura benetakoa zela”–.

Joan den mende hasierako Miarritze Nabokoven lumatik irakurtzeak izan dezakeen interesaz harago, ez da istorio bereziki azpimarragarria ez baitauka argumentu handirik, ezta bukaera borobilik ere. Idazle errusiarraren obra txikietako bat dela esan liteke, eta hala ere, narrazioaren tonu nostalgikoak oso gustura irakurtzen den pieza bihurtzen du. Izan ere, nork ez du maite bizitzaz gehiegi zikindu gabe geunden garaiekin akordatzea? ■

Gorka Bereziartua





Elektronika eta trikia

GOGOAN DAUKAT Gose taldea sortu baino askoz lehenago, Los Albertos eta Los Pichones taldeetan aritutako Iñaki Bengoa arrasatearrak elektronikarekin lehen esperimentazio saioak egin zituela El Desván del Macho taldeko Jose G. Izcuerekin batera, El Leprosario deituriko proiektuan. Ordurako bere ametsetako bat zen elektronika eta trikia batuko zituen taldea sortzea. Horren orde, baina, euskal kutsurik gabe, Euskal Herrian elektronika eta punka batuko zituen lehen taldea, Bad F-Line, sortu zuen. Punkindako elektronikoeziak eta techno zaleentzat punkiegiak, autoekoiztia. Madrilgo zein Euskal Herriko diskoetxeekin hainbat lan kaleratu zituzten. Ordurako Bengoak begiz jota zuen trikiarekin eskarmentu handia zuen Ines Osinaga arrasatearra. Osinagak erakutsia zuen, plaza eta erromerietako emandialdiak ondo egiteaz gain, rock abeslari eta frontwoman gisa ere agertokia betetzen zekiela. Hala erakutsi zuen, besteak beste, Isarevolution punk-power-rock taldean.

Halako batean Bengoak Osinaga konbentzitu eta Kañeria, Des-Kontrol eta Gatillazo punk taldeetan aritutako Jon Zubiaga 'Osoron' fitxatu zuten hirukoa osatzeko. Aspaldi irudikatutako proiektua gauzatzeko gose ziren. 2005ean lehen diskoa argitaratu zuten eta proposamen zein eszenaratze landua, berritzailea, iruditu zitzaidan, baina ez ninduen ase. Gerora, Intxorta 1937 Kultur Taldea eta hirukotea

harremanetan jarri eta gerora, *Amets Gorria* eder bezain hunkigarria idatzi zuten, bigarren diskoan jaso zutena. Izan ere, 2007ko disko zuriak gehiago erakarri ninduen. Hala ere, erabat harrapatu ninduten *Surik bai?*, *Portaloian* eta antzeko perlak jaso zituen hirugarren lanarekin, gorriarekin. Horren ostean, Euskal Herriko mota askotako artistek arrasatearren kantuak bertsionatu eta bilduma argitara eman zuten.

Orain, berriz, bosgarren diskoa, laranja kolorekoa, aurkezten ari dira. Lehenengo aldiz taldeak gotorleku eta laborategi duen Shot! estudioetatik irten eta Madrilgo Spam estudioira jo du 80etako soinu disko-tekerogoa lortzeko asmoz. Bada halako kantu retrorik (XXX eta *Bang* dantzagarria kasu), baina bestelakorik ere bai: *Ezetz* abestiak elektronika eta trikia ezin hobeto ezkontzen ditu; Bad F-Lineren *Desolé* bertsioan esperimentatu egin dute; *Zaborra* ia musika industrialera eraman dute; eta DZ with Patrol Destroyersek *Naizena izateko* abestiaren remix borobila egin du. Bestalde, bada Maurizia berpiztuko lukeen kantu siziliano-balkaniko ederra (*Kamarada*); drum&bass eta raggamuffira hurbiltzen den *Spam*; eta makinak gitarren agindutara jarritako ospakizun-iraultzaileko *Hil da Europa* hit-a ere bai. ■

Iker Barandiaran



INAKIBEREZIARTUA
Enbalajeak · Biltegiatzea eta Logistika · Zerra eta eraikuntza

25 urte baino gehiago paketatze industrialaren sektorean

Jauregi auzoa, 75 · HERNANI · (Gipuzkoa) · ☎ 943 552 828
www.inakibereziartua.com · mjm@inakibereziartua.com

ogiaren egia

Zatoz eta ezagutu garai batean egiten ziren ogiak, lehengo osagai eta teknikekin



Galparsoro
OKINDEGIA

Antzinako ogiaren kabia bihurtu baitugu denda zahar berria

Kale Nagusia 6 (Alde Zaharra) - DONOSTIA - Tel.: 943 421 074

Puzzlea

Koka ezazu pieza bakoitza dagokion tokian eta Itxaro Bordak esandako esaldi bat irakurriko duzu.



Sudokuak

Erraza


9	2	7	5			1		3
1	8	4		2		6		
	6							
	5	1		9	4	8		
6			8		5			1
		8	1	6		9	2	
							4	
		5		1		7	9	6
7	9			8	5	1	2	

Zaila

	9		4			1		
		3	2		7		8	6
6							4	3
	8							
3			9	1	5			7
							3	
1	4							8
8	7		1		4	3		
		2			8		9	

5x5

Zeharretara eta goitik behera, hitz bera.



1.-Euskal jaka. 2.-Agiriak. 3.-Hitzarmena. 4.-Arau. 5.-Izana.

Kike Amonarrizen umorea



Jainkoa non?

Apaizak honako hauxe galdetu die haurrei:

– Haurtxook! Eta zuek, non uste duzue dagoela gure Jainkoa?

Erantzunak arrapaladan datoz:

- Elizan!
- Gure bihotzetan!
- Paradisuan!

Eta bat-batean Patxiku Txikik:

- Gure etxeko komunean!
- Zuen etxeko komunean? – galdetu dio apaizak harriturik–. Nondik atera duzu hori?
- Bai, apaiz jauna! Gure etxean, goizero, hauxe esaten du aitak komunera sartzen saiatzen denean: Jainko maitea! Baina oraindik hor al zaude?

Soluzioak

Erraza

1	8	4	3	2	7	6	5	9
5	6	3	9	8	1	2	7	4
3	5	1	2	9	4	8	6	7
3	6	4	9	1	5	4	3	1
4	7	8	7	5	4	3	1	1
2	1	6	7	5	9	2	5	8
8	3	5	4	1	2	7	9	6
9	2	7	5	4	6	1	8	3

Zaila

7	9	8	4	6	3	1	5	2
6	2	5	8	7	9	8	6	6
2	8	7	3	4	6	5	1	9
3	6	4	9	1	5	8	2	7
9	5	1	7	8	2	6	3	4
1	4	6	5	3	9	2	7	8
8	7	9	1	2	4	5	6	5
5	3	2	6	7	8	4	9	1

Puzzlea: "Niki, literaturaren bidez, filizioan jarri nahi izan ditut alde guztietako mintzalariak, beren ikusmoldea eman zezaten. Iritzi polifonia bat nahi nuen".

5x5: 1. Kaitku. 2. Aklak. 3. Ituna. 4. Kanon. 5. Ukana.



Arte garaikidearekin jolasean

ABENDUKO erauntsian heldu zen aurkezten ari garen perla, Durango-ko Azokak zenbait egun lehenago sortzen duen motroiloan.

Haurrentzako gida dela nabarmentzen du azalak, arte garaikidea ulertzeko eta identifikatzeko metodo modukoa dela. Eta hauxe irakurrita produktu pedagogiko baten aurrean gaudela irudi lezakeen arren, hori eta gehiago da *Arte garaikidea?!* (Nerea, 2012). Bada eskuliburua, baina baita gonbite erakargarria ere, nazioarteko arte garaikidea ezagutzera deitzen duen amua. Eta bada, halaber, zortzi urtetik gorako haur, guraso, eta zeinahi zaletu lilura dezakeen gozagarria ere. Adibideak, azalpenak eta istorioak bikainak direlako, ongi

hautatuak, ongi idatziak, ongi erresolbituak. Jakina, euskarara txukun ekarriak.

New Yorkeko MOMAren (Museum of Modern Art) arte funtsetik abiatuta, obren errepertorio kolorista eta anitza eskaini dute egileek. Esan nahi baita, Jacky Klein arte historialariak eta Suzy Klein idazle eta dibulgatzaileak. Xedea zera dute, mundu osoko 70 artisten lanen bidez arte garaikidea ezagutzera ematea. Besteak beste, Andy Warhol, Louise Bourgeois, Yves Klein, Joseph Beuys, Joan Fontcuberta eta Eduardo Chillida xehekatu dituzte. Espazioaz, material bitxiez edota elementu arraroez mintzo dira xume eta zehatz, eta ikus-entzunezko arte-lanaz, performanceez, instalazioez,

arte objektu eta tramankulu harrigarriez, artisten ideia eta teknika zabalduz...

Lanaren osagarri, artisten biografia txikiak, arte terminologiaren hiztegi moduko bat eta zenbait helbide elektroniko interesgarri datoz liburuaren atzealdean.

Sarreratik bertatik lotzen du liburuak. Askotan, azalpenak ematen hasi beharrean, begiak zabaltzeko eskatzen duelako. Obraren itxuratik harago jartzearren, sentimenduak erabiltzera bultzatzen duelako. Parte hartzera gonbidatzen duelako: begiratu, aztertu, gozatu eta galderak egin. ■

Garbine Ubeda
Goikoetxea




Bartolo
taberna - jatetxea

Euskal sukaldaritzan eta pintxotan aukera zabala

Fermin Calbetón, 38
Donostia - San Sebastián

© 943 420 279
www.casabartoloetxea.com



Euskal Herria ezagutuz

DONAPALEU (NAFARROA BEHEREA)

Azken harresia

XVI. mendean Donapaleu Nafarroako koroaren egonleku izan zen, erbeste gune. Gaur, ekialdetik datorren erdalduntzeak euskarari lekua kendurik, harresi gisa ikusten duenik bada.

| ITZIAR MADINA |

Argazkiak: Christophe de Prada

NAFARROAKO AZKEN ERREGINAK DONAPALEUN Antton Valverderen kantuko txirula eta pianoa buruan darabilzkizula ibil zaitezke, Donapaleuko neguko karrika hotzek Nafarroako koroaren azken ordezkarien arrasto isiletatik bideratzen zaituztela. Harri zaharrek hamaika aurpegi erakusten eta Lapitz Hotza ibaiak belarrira mila eta bat sekretu xuxurlatzen dizutela. Melodia haren kulunkan, Xabier Leteren hitzek lagunduko zaituzte, Bepizkunde garaiko Donapaleuko historian lurburtzen, bereziki Justizia Jauregiko karrikan. Han, Nafarroako Estatuaren egoitza, eliza protestante izana eta barbaroa zaigun Notitia Utrisque Vasconiae idatzi zuen Arnaud Oihenarten etxea ikusiko dituzu. Gorpuztuko ote zaizu, ondotik, behialako horren itxura: euskaldun, hugenot, exiliatu, laster Frantziako erreinuko buru... izan zen Labriteko leinua handik iragan zela. Gaur, eraso berriaren aurkako azken harresia, harresi akitu, pitzatu baina bizinahia da Donapaleu eta kontatzeko asko badu, ez idurian ere.

Ostirala ez bada, arazorik ez dateke autoa nonahi uzteko, Donapaleun. Herri bihotzetik kanpo, eli-

zaren eta postaren ondoan egitea ez da aukera txarra. Bidenabar, Amikuzeko mediatekan erakusketarik ikusgai baden ala gure astekari maitatuena jaso duten begiztatzera joan gaitezke. Bestela, arras polita da Foirail plazan aparkatzea, ostiraleko merkatuaren aldia ez bada, erran gabe doa. Erdiguneko plaza horretako platanoez trinketeko eta ostatu abegikorretako atea gerizatzen dituzte. Eta Mixel Thikoipe idazleak ederki kontatzen digunez, Amikuzeko historia anitzen berri dute. Hala nola, herritar batzuen nazien kontrako erresistentziarenak.

Amikuze Baxenabarren da eta Donapaleuko inguruari deritzo. 24 herriz osatua da, horietan hiru Xiberoarekin partekaturik dituela: Pagola, Domintxine eta Lohitzüne-Oihergi. Xantza amiñi batez, Donapaleun paseatzean “zuka” eztiz eginiko amikuztar euskara entzunen dugu. Amiñi batez ala amiñi biez. Ezen, seriooki mendraturik baitago euskara Amikuzen. Historikoki Euskal Herri ekialdeak jasaten duen erdalduntze oldarrari ezponda egiten dio eskualdeak. Preseski, zentzu horretan hainbat eragileren lana goraiatu ohi da, besteak beste iaz 40 urte bete

zitzen Amikuzeko ikastolarena. Ala Burgaintzi dantza edota Kitzikazank antzerki taldeena. Bestalde, Amikuze zenbait euskal idazleren jairo ala bizileku dela ere oroitarazten da. Horrela, Itxaro Borda Oragarrekoa da sortzez. Koldo Ameztoi kontalaria berriz, Arruta herri sotilekoa. Haien aldetik Eñaut Etxamendi eta Mattin Hirigoien garaztar idazleak Amikuzen bizi dira. Baita Amikuzeko memoria literatura bilakatzen hain trebe den Mixel Thikoipe amenduztarra, gorago aitatua. Indar horiek oro Euskararen Eguna abiarazten lagundu zuten duela bi urte, Donapaleun. Hori bilakatu baita aurtan, Nafarroa Beherea osora hedatu euskararen aldeko hilabete osoko kanpaina. Bide beretik, inauteriak berpiztu dituzte Amikuzeko euskaltzaleek, eta Libertimendua berreskuratu. Hots, esku anitz ari da lanean, harresiak duen arrailduran petatxua ezartzen, euskal kulturaren hormak tinko atxikitzeko xedez.

Herri erdia, erdigune historikoa

Herri erdian gauden seinale dira Donapaleuko erriko etxearen harri pezak. Bai eta bidegurutze deigarria. Ekialdera, Xiberoa eta Biarno ditu-





Ezkerrean, Amikuzeko Herri Elkargoaren egoitza, aurretik eliza eta ondoren justizia jauregia izandakoa. Haren parean da Arnaud Oihenart idazle mauletarra bizi izan zen etxea (eskuineko argazkian).

gu: Aiziritze, Domintxine, Maule, Salbatera, Saliese, Pau. Ur gaziaren herria den Saliesen errefuxiatu zen Joana Labritekoa, erlijio gerla denboran. Biarnoko auzo herri horietan oraindik daude protestanteen tenpluak. Mendebaldera, Lapurdi dugu. Ipar-ekialdera aldiz, Peirahorada eta Landak. Bide erdian, mugaldean, xarnegu herria, ahanzturatik hurrantzen. Izan ere, aitzina hiru eledun zen herrialdea lainoak itzaltzen ikusi baitzuen. Oroimena bizirik atxiki nahiz, gaur, Xarnegu musika festibala egiten da urtean behin, Bardozen. Eta Xarnege taldeak jakin izan du Euskal Herriko eta Gaskoiniako doinuak nahiz musikariak biltzen.

Baina ihesi joan gara. Gauden Lapitz Hotza (frantsesez, Bidouze) Aturrira isurtzen den errekararen

bazterrean. Hautatzera, eguzkitara. Turismo bulegotik ezkerrean harturik, Ona Tiss ehun lantegia bisita daiteke, Euskal Herrian hori bezalako azkena. Kotoia eta lihoa iruten dute han, 1948az geroztik. Gero, erreka hegira joan daiteke, ibilian. Eskailerak jautsi eta errepede nagusiko zubiaren azpitik iragatera. Haatik, hala egin aitzin, ibaiaren bestaldean den igerilekuari behako azterlaria bota behar zaio, pentsatuz gune hori zaldi lasterketako lekua izan zela, ez du hain aspaldi. Gure aitañi eta amañiak De Saint Jayme mezenas malerusak ekarri zituen zaldi proba famatu haien ikusle izan ziren. Horrela, lasterraldi zelaiaren forma obalatuari ohartuko gatzazkio, halaber ikusleen jarleku mailakatuak izandako tontorrari.

Zubia iraganik, belarretik zenbait urrats eginez eihera izandakoaren arrastoak ikusiko ditugu ezkerrean. Gozo da, horren ur jautsian den bistaz gozatzea. Gero, karrika hertsia Justizia Jauregiko (Rue du Palais de Justice) hartara bideratuko gaitu, zehazki “Nafarroako Errege Karrika” izan zenera. Horren ezkerreko muturrean da XII. mendean Jondoni Paulorena izan zen eliza. Eraikinak funtzio politikoa bereganatu zuen XVI. eta XVII. mendeetan Nafarroako Estatu Nagusien egoitza bilakatu. Joana Albretakoa eta Enrike IV.a izanen zen nafar erregeak Donapaleun zirelarik, eliza erreformatuaren tenplua ere izan zen. Eta Frantziako 1789ko Iraultzaren ondotik, Auzitegi bihurtu zen, 1955 arte. Gaur, Amikuzeko Herri Elkargoaren egoitza da.

Amikuzeko laborantza, etxetiargo laborantza

OROGRAFIA LEUNEKOA izanik, Amikuzeko lurrek ordoki bezain gizenen fama dute Baxenabarren. Mendialdeko artzainek hango bazkak erosi ohi zituzten, eta zinez laudatzen. Baina sozialki, etxetiargoa da bereziki hedatua izan Amikuzen. Hots, etxeko nagusi bakar batzuek etxe andana bazuten eta horietan etxetiarrak, maizterren parekoak. XX. mendeko bigarren erdialdera laborantza kooperati-

bista sortu zen, Jean Errecartek bultzatu Lur Berri kooperatibaren bidez. Emeki-emeki, etxetiarrak baserriak erosi ahal izan zituzten. Eta urteak joan arau, Lur Berri suspertu nekazaritza industrial nagusitu zen, salbuespenak salbu. Egun, ekoizpenen gehiengoa zereala da, zehazkiago artoa, eta hazkuntzan, zerritegi ala behitegi industrialak.

Hala ere, ostiraletako Donapa-


leuko merkatuan kalitateko lekuko ekoizpenak atzeman daitezke: sagardoa, erreximentak, gasna, barazkiak, arrautzak, zerri eta behi haragia. Batzuetan, *poailleri* biziak ere: oilo eta *gita* (“ahate”, Amikuzeko euskararen) txitak. Zeren Amikuzen goi mailako ekoizpenik bada, hori ahate gizona baita. Azarotik martxora, ahate gizen osoa ala gibel gizen freskoa erostekotan, hobe goizik merkaturatzea...

Francis de Saint Jaymeren zoritxarreko patua

OSO ABERATSA bide zen Francis de Saint Jayme Donapaleuko jaunttoa, gaur herriak duen zabalera osoan eremu, etxe eta besteen jabea. Bestalde, edertasun izugarriko andere bati esposatua zen. Haatik emaztea

erotu zitzaion eta Francis de Saint Jaymek bizi osoa alargun gisa iragan omen zuen. Bere ondasunak oro Donapaleuko Herriko Etxeari utzi zizkion baldintza batekin: herriak bere biziko amodioa zen

De Saint Jayme andereak Frantziako egoitza psikiatriko luxuzkoetan egiten zituen egonaldien saria ordain zezan. Donapaleuko trinketak haren izena darama, berak ordaindu zuela oroitzeko.



Saint Jaymeren izena du herriko trinketak, Euskal Herriko luzeenak. Gustave Eiffelek asmatua da bere bizkarrezurreria iltatzeko sistema, eskuineko argazkian ikus daitekeena.

Oihenarten oihartzunak

Horren parean da Derdoy-Oihenart etxe noblea, “Buruen etxea” ere deitua. Atarian izan ere, Nafarroako azken erregeen zizelak ezagun baitira. Baina deabruarena eta emankortasunarena ere. Etxe horretara zen ezkondu Arnaud Oihenart sortzez mauletar lege gizon, historialari eta idazlea, *Notitia Utrisque Vasconiae tum iberica, tum aquitanica* liburuaren egilea. Ezkontzaz Nafarroako nobleziako kide, Oihenartek historia eta lege auziak ikertu zituen, beti ere ordezkatzeko koroaren eta Agramonteko leinuaren ikuspegitik. Euskal Herriko historiari buruz idatzi zuen lehentzat jotzen da. Hil baino lehen, ba omen zituen 20.000 orrialde bildurik, idazki, ohar eta dokumentu. Tamalez, gehienak desagertu ziren. Oihenart lehen idazle zuberotarrak asko idatzi zuen latinez, nahiz euskaraz ere bi liburu argitaratu: *Atsoitzak* eta *Gaztaroa neurtitzetan*. Begipean dugun etxean zendu zen 75 urte zituela, 1667an.

Hain zuzen ere, Oihenart karrikatik elizarantz joanez urrentuko dugu Donapaleuko hirigunearen bisita. Bidean sar gaitezke Santa Maidalena elizara. XIX. mendean eraiki zuten, leku eskasa bide baitzen orduko elizan. Eraikin Historikoetan zerrendatua da Cavaillé Coll orgina duelako. Elizatik eskuin hartuz, Herriko Etxera eta gure abiapuntura inguratuko gara, Foirail plazara. Eliza bezala, Donapaleuko Saint Jayme trinketa Eraikin Historikoetan sartua dago. Altzairuzko bere bizkarrezurreria Gustave Eiffelek asmatu iltatzeko sistemaren arabera eginik baitago. Euskal Herriko lehena eta oroz gainetik, luzeena den trinketak Francis de Saint Jayme Donapaleuko seme aberatsari zordio izena. Hark

zuen eraikiarazi garaiko teknika eta egin molde hobereenak hautaturik. Ospeak ospe, De Saint Jayme izan zen guztiz zorte gaiztoko diruduna. Dela trinketea, dela ondoko beste ostatuan nahiz Herriko Etxeko plazakoean, jartzeko eta pausa hartzeko leku eroso atzeman daiteke.

Euskaraz galdegin daiteke han edo hor. Xantza apur batez, erantzuna ere hala izanen dugu. ■






1921-ETIK, CAMPOS-EK
HEGALUZE-KONTSERBA EGITEN DU
DENBORAREKIN HARTUTAKO OHITUREI
ESKER, HEGALUZERIK ONENA BILATZEN
DU ZUK, GAUR, KALITATEZKO PRODUKTU
GOZO BATEKIN GOZATZEKO.



Gure webgunean erosi: www.clubcampos.com

Azkenik, badirudi Apophisek ez gaituela joko 2036an



LURRAREN INGURUAN milioika harri-puska ari dira biraka. Ez dira gutxi gure atmosfera zeharkatu eta lurra jotzen dutenak. Asko erabat suntsitzen dira atmosfera zeharkatzean, eta guregana heltzen direnak txikituta ailegatzen dira gehienetan. Lurraren orbitan biraka ari direnak eta tamainaz handi samarrek direnak kontrolatuta ditugu, nolabait esatearren, hau da, euren orbitak ezagutzen ditugu eta

hurrengo urteetan zer egingo duten ere bai, gutxi gorabehera.

Beste kontu bat da unibertsoan zehar norabiderik gabeko bidaian dabilen asteroideena, Lurretik distantzia jakin batera hurbildu arte detektatzeko zailak direnez ezuste handiagoak eman ditzakete eta. Azken aldian nolabaiteko alarma piztu dute horietako bati buruz hainbat berriemailek emandako informazioek. Urtarrilaren 9an, Apophis izeneko harri puska 14,4 milioi kilometrora hurbildu zitzaigun, eta hainbat hipotesiren arabera 2029 eta 2036 urteetan 30.000 kilometro ingurura hurbildu daiteke. Kalkuluak egiteko sistemaren errakuntza tartegatik, %2ko probabilitatea zegoen Apophisek Lurra jotzeko; kontuan hartzen badugu haren diametroa 350 metrokoa dela, piztutako alarma justifikatutakoa izan zitekeen.

Dena den azken berriak oso lasaigarriak izan dira, NASAk egindako neurketen arabera Apophis 2036an hurbilduko baita Lurrera, baina uste zena baino askoz urrutirago geratuko da.

Askoz lehenago jasoko dugu 40 metroko diametroa duen DA14 izeneko asteroidearen "bisita": datorren otsailaren 15ean gugandik 27.700 kilometrora igaroko da. ■



ttiki.com/46309
(Gaztelaniaz)

Gero eta gatz gehiago dago munduko ibaietan

Australia, Frantzia, Alemania eta Kataluniako hainbat unibertsitatetako ikerlari talde batek argitara emandako artikulu baten arabera, mundu osoan ibaien gazitasuna handitu egin da, eta horren ondorioz ekosistema osoak eraldatuko dira. Besteak beste Mediterraneoan itsasoratzen diren ibaiak aipatu dituzte ikerlariek.

ttiki.com/46310
(Gaztelaniaz)

Monitore malguetan aurrerapenak



DUELA HILABETE BATZUK aipatu genuen LG enpresa korearrak Flex One izeneko e-book malgua aurkeztu zuela; orain Samsung izan da telefono eta tablet arteko sistema berri batekin azaldu dena, Las Vegasen (AEB) egindako CES erakustazokan.

Ez dakigu erakutsitakoa noiz merkaturatuko den, baina garbi dago monitore eta sistema malguen arteko lasterketa abian dela. ■



Homosexualitatearen arrazoi genetikoak bila

Homosexualitate edo heterosexualitateaz hitz egin denean ia beti arazoak sortzen dira, batez ere arazo etikoak. Oraingoan, ikerlari talde batek zientzia hutsaren ikuspegitik gaiari heldu nahi izan dio, eta bere ondorioak plazaratu ditu.

ttiki.com/46311
(Gaztelaniaz)

Babeslea: **iametza Interaktiboa**

ideia batetik errealitatera



web garapenak



multimedia



aholkularitza



edukiak



iametza
interaktiboa
www.iametza.com
T.943 37 67 16

Etsai desdetxa

GURE BARRUNBEHETAN zizareek kalte egiten duten eran, lurrean mesede besterik ez dute egiten. Han ere, kalte egiten duen aurkari jende faltarik ez da, orde! Onddoak direla, birusak direla, nematodoak direla, karraskariak direla, intsektuak direla... Hau da hau kontrario desdetxa, etsai armada! Zizare kaltegarri haien aurka bezala, gudaroste horri aurre egiteko landare aukera polita dugu eskueira. Maiz aipatu baditugu ere ez genituzke sekula ahaztu behar, eta botika kimikoak baino lehenago ekarri gogora eta erabili. Pozoiak gero ere hor izango dira...

Hesteetako bizioak kanporatzen dituen baratxuriak (*Allium sativum*) bateren edo besteren batengana hurbiltzeko aukerak zapuzteko usainean duen indarra ezagutzen dugu. Duzun gosearen arabera usain gozoena kirats atsituena daiteke. Izugarri-izugarri ona da bai baratxuria. Baratxuriaren aldamenean bizitzeko mentura egokitu zaion landareak ez du zori makala, kukuak jo dio. Onddoek sortutako gaitzak ez ditu sendatzen, baina sartzea hein batean eragotzi bai. Zorri, akaro eta beste ia edozein arerio izutu eta uxatuko



LOWJUMPINGFROG-CC BY

Baratxuria, *Allium sativum*, primerakoa duzu zorriak uxatzeko, besteak beste. Bortusaia, *Ruta graveolens* (eskuineko argazkian), berriz, zorriok garbitzen da iaioa.



JORG HEMPEL-CC BY SA

du. Ondoan baratxuririk ez duen landareari bere ura eman behar... Hamar gramo baratxuri xehatu eta litro bat uretan egun betez eduki; hogeit bat minutuko irakinaldia eman eta hoztu. Landareak eta inguruko lurra busti, goizean goiz edo ilunabarrean, argiak eta tenperatura altuek moteldu eta andeatzten baitute. Antzeko lana egiten du tipulak, *Allium cepa*. Tipula bat txikitu eta litro bete uretan bost bat minutuz egosi. Hoztutakoan landarea blaitu.

Landareon ur horiek beste botika naturalekin nahasita erabili daitezke, azeri-buztana (*Equisetum arvense*), osina (*Urtica dioica*) edo tabakoarekin (*Nicotiana tabacum*) egindakoekin, adibidez.

Ur horietakoa da bortusaiarena, *Ruta graveolens*, erruda usainduna ere deitzen denarena. Etxe ondoan lan polita egiten du, bere usainaz euli eta eltxo jendea uxatuz. Kuxidaderako joera nabarmena du bortusaiak: zorriak garbitzen iaioa da. Lagun baten aitak, Erramunek, oiloak zorritz josita zituela eta ea erruda non topa galdezka etorri zait; bere ama zenak hala egiten omen zuen eta. Landareen zorriak ere garbitzen ditu. Baita, kaskamotz edo kalpar, ilaje guztietako lagunena ere; geureak, alegia. 200 gramo bortusai litro ureko, baratxuria bezala prantatu. Gero ilea, luma, hostoa, duzuna duzula, ongi busti. ■



VI. EUSKAL
SOZIOLINGUISTIKA
JARDUNALDIA

2013ko urtarrilaren 31

- Kursaal Aretoa
- Donostia



Ikasleen Jarduna:
emaitzen hausnarrean
ARRUE Ikerketa

Ikasleen hizkuntza erabilera gelan eta jolaslekuan:
Ikasledeen artean eta irakasleekin



Iruñeko zitadela elur gudu batean galdu zen

IRUÑEA, 1808KO OTSAILAREN 8A. D'Armagnac jenerala buru zuen frantses soldadu taldea hirira iritsi zen. Erronkariko bailara eguraldi kaxkarrarekin eta baldintza gogorretan zeharkatu ondoren, 2.000 soldaduek Nafarroako hiriburuan hartuko zuten atseden, aurreago Portugalerako bideari berriro heltzeko.

Hilabete batzuk lehenago, 1807ko urriaren 27an, Espainiako Karlos IV.a erregearen balido Manuel Godoyk eta Napoleon Bonapartek Fontainebleauko Ituna sinatu zuten. Itunaren arabera, bi potentziek Portugal batera inbaditzea erabaki zuten, Portugal ingelesen aliatua baitzen. Horretarako frantziar tropei Iberiar penintsula zeharkatzeko baimena eman zien Espainiako erregearen ordezkariak. Portugal ez ezik penintsula osoa inbaditzeko frantziarrei atak parez pare zabaldu zizkieten, alegia.

Teorian, itunak zioenez, frantziarrak aliatuak ziren, baina iruindarrek susmo txarra hartu zieten “inbaditzaille baketsu” haiei, besteak beste, 2.000 gizoni ostatu emateaz gain, jan-edanak ere musu truk eskaini behar zizkietelako. Eta mesfidantza horrek oinarri sendoa zuen: Murat mariskalak zitadela hartzeko agindua emana zion ordurako D'Armagnac jeneralari.

Egun gutxitan soldadu frantziarren kopurua bikoiztu egin zen. 4.000 soldadu nahikoak ziren zitadela hartzeko, baina frantziar jeneralak, ahal zela, ez zuen



Iruñeko zitadelaren ekialdeko harresia eta katedrala elurtuta, XX. mende hasieran. Mende bat lehenago, frantses armadak zitadela hartu zuenean ere ingurua elurtuta zegoen, eta frantsesek ederki aprobetxatu zuten.

gotorlekua indarrez hartu nahi. Hala, Nafarroako erregeorde eta kapitain jeneral Vallesantoroko markesarekin bildu zen. Buruzagi frantziarrak hainbat soldadu Iruñean kantonatzeko baimena eskatu zion Vallesantorori, baina hura luzamendutan ibili zen, erabakia bere esku ez zegoela eta baimenak zuzenean Madrildik etorri beharko zuela esanez. Diplomaziak bide laburregia egin zuela ikusita, D'Armagnacek estrategia militarra jo zuen: Robert kapitainarekin

bildu zen eraso planifikatzeko.

Otsailaren 15tik 16rako gauean, Robert kapitainak 100 soldadu bikainenak aukeratu zituen eta, itxuraz armagabetuta, gauero bezala, zitadelako atera hurbildu ziren eguneroko ogi errazioak jasotzeko. Bezperan elurra gogotik bota zuen, baita ingurua ederki zuritu ere, eta Robert buru zuten soldaduetako batzuk elkarri elur bolak jaurtitzaren hasi ziren. Zitadela defendatzen ari zen taldea ezohiko gudu hartaz trufatzen ari zela aprobetxatu zuten gainerako frantsesek gotorlekua erraz hartzeko. Egia esan, arreta galarazteko maniobra ez zen hain merezimenduzkoa izan, zitadela gerraren artean prestakuntza urria zuten boluntario gutxi batzuek defendatzen baitzuten. Ez dakigu zenbat elur bola jaurti zituzten gudu hartan, baina zitadela tiro bat bera ere bota gabe hartu zuten. ■



Arrastoak

Schindlerren zerrendako kiderik gazteena hil da

MCKENZY TAYLOR



LEON LEYSON, Oskar Schindlerrek bere zerrenda ezagunari esker salbatu zituen 1.100 juduen artean gazteena, Kalifornian (AEB) hil da 83 urte zituela. Zerrendako 289. izena zen berea, eta 13 urte besterik ez zituela hasi zen Schindlerrentzat lanean. Adina eta elikadura urritasuna medio, Leyson txikiak kaxa baten gainean

igota lan egin behar zuen, eta Schindlerrek berak gaztearen janari errazioak bikoizteko agindu zuen.

Leysonen beraren hitzak erabiliz, ez zuen “Holokaustorearen itzalean” bizi nahi izan eta iraganari buruz hitz egiteari uko egin zion luzaroan. Spielbergren filma ikusi zuenean erabaki zuen bere lekukotza ematea. ■

«Baskismora eboluzionatu behar dugu gehiago»

(Pitillas, 1970). Zuzenbidean lizentziatua. PSNko idazkari nagusia. Nafarroako Gobernuako lehendakariorde izan da legealdi honetan. 2012ko ekainaren 15ean Yolanda Barcina presidentek UPNko gobernu baten krisiaren ondorioz kanporatu zuen. Pentsa liteke, nafar politikaren aro berri baten zorian gaudela, edota PSNren jitea azken hogeita hamar urteetako bera dela.

| MIKEL ASURMENDI |

Argazkiak: Dani Blanco

NAFARROAKO PARLAMENTURAKO hauteskunde zerrendan bederatzigarren postuan joan zen 2007an. Alabaina, ondoren, gorabeherak izan ziren alderdian (PSN), eta idazkari nagusi hautatua izan zen: “Ilusioz hartu nuen kargua, alderdiaren barne egitura gaurkotzeko, bere antolaketa baliagarri bihurtzeko, pertsona arbuiatuen alde egiteko, hau da, langileriaren eta klase ertainen alde. Are arrazoi gehiagoz orain, krisia dela eta”, erran digu.

PSN alderdia ahul dago. Besteak beste, bere iragan asaldatuaren eta zurrunbilotsuaren ondorioz.

Egia da, une honetan ez gaude egoera onenean, 2011n ez genituen emaitza onenak jaso, urte oso txarra izan zen, baina hau ez da alderdi ahula. Egitura sendoa dauka, alkate eta zinegotzi asko. Espainia eta Nafarroa gobernatu dituen alderdi baten indarra dauka. Indarra bere printzipioetan eta baloreetan oinarritzen dituena, nafar gizarte gehiengoaren printzipioak. PSN nafar alderdia da.

Ez da Trantsizioko alderdi hura, halere. Autodeterminazio eskubidearen aldekoa zen hura, besteak beste.

Gurea, bistan denez, marko instituzionala defendatzen duen alderdia da. 1982az geroztiko alderdi sozialistak argi dauka zein den ekiteko markoa: Nafarroako Foru Erkide-



«Ni Gallardon baino zuhurrago nintzateke presoen gaian»

ETAk jarduera armatua bukatutzat eman zuen orain urtebete luze. Zein da urte horretako balorazioa?

Askatasun handiagoko etapa zabaldu da, lasaitasun gehiago dago, terrorismoaren zigorrak gabe. Baina asko dago lantzeko. Elkarbizitzan aldi luzea dugu betetzeko. 50 urteko krimen eta estortsioa ez dira gainditzen erraz. Eta gaintitu behar da, baina egiazko memorian eta justizian oinarrituta, koherentziaz. 36koaz egia eta justizia eskatzen ari bagara, fenomeno honen gainean berdin. Ezin da pertsona hil duena eta biktima parekatu. Terroristak izen-abizenak ditu eta biktimak ere. Terrorista, terrorista da. Besterik da egoera gaintitzeko bokazioa izatea. Gaintitu bai, baina egiaren gainean oinarrituta.

Ezker abertzaleak egindakoa ez da gutxi halere.

Inportantea da. Baina asko falta zaio egiteko eta ibiltzeko, baina onartu behar da hesi asko gaintitu duela, baina...

Baina, zer falta da?

Balore demokratikoak hobeto asumitzea, intentsitate handiagoz, uste dut hori eskas duela oraindik.

Presoen eskubideen bidean ere urrats gehiago eman litezke.

Presoen tratamendua norbanakoen da, eta preso bakoitzaren borondatearen arabera. Espe-txe erregimenak jartzen dituen baldintzak asumitzeko prest bada-go, abantailak baliatzeko, bada

aurrera. Baina norbaitek preso kolektiboaren izenean zerbait egin nahi badu, oker dabil. Presoa zigor indibiduala daukan pertsona da, beraz, tratamenduak ere indibiduala behar du. Baldintzak ematen badira behintzat.

Bilboko azken manifestazioak zer iradoki dizu?

Errespetua.

Eta manifestazioaren ostean Espainiako Justizia ministro Ruiz Gallardonon adierazpenek? ETA deseginda ere espetxe politika ez dela aldatuko esatea, alegia.

Maximalismoak sobran daude gai hauetan. Ni Ruiz-Gallardon baino zuhurrago nintzateke presoen gaian.

goa Espainiaren barruan. Trantsizio-ko PSOEk beste ñabardurak izan zituen gaurko alderdiaren aldean.

PSNk akatsak egin dituela onartu omen dituzu pribatuan, baieztatzen al duzu hori publikoki?

Akatsak alderdi guztiek egin ditugu, baita PSOEk eta PSNk ere gobernuan nahiz oposizioan izan direnean. Egia da, hemen une erabakigarri zenbaitetan alderdi irmoagoa izan behar genuen UPNrekiko. Baina, egia da, terrorismoak baldintzatuak izan gabela. Terrorismoak ekimen politikoa markatu du urtetan, eta hainbat gaietan bestera jokatzen eragotzi digu. Guretzat, lehenik askatasuna eta demokrazia egon dira auzian, eta gero gainerakoak. Hartara, sintonia gehiago zegoen UPNrekin gainontzeko alderdiekin baino, batez ere nazionalismoaren esparrukoekin.

Artean, PSN eskuinaren menpe geratu da, UPNren menpeko.

Ez. Inola ere ez. Adibide praktikoa bat emanen dizut: Parlamentuko bozeramaleak iruzur fiskalaren aurkako legea aurkeztu du, eta guk lege alternatiboa aurkeztu dugu. Ekimenak direla medio ezagutuko dituzu.

Cervera aferaz: zer iritzi duzu PPko Santiago Cerverari gertatuaz?

Esan dezakedan bakarra da, gertatu dena argitzea nahi dudala, eta garbi daukadala biktima bat dagoela: Jose Antonio Asiain. Estortsio baten biktima. Beste pertsona bat dago inplikaturik eta auzitegiek ebatzi beharko dute.

CAN hizpide ere, zure anaia bat irregularitasunak egin izanaz akusatu zuten.

Diario de Noticiasen atera zen artikuluz ari zara? Nire senitarteko zuzen bati erreferentzia egiten zion, baina idatzi zuenak zuzendu zuen, faltsua baita. Senitarteko horrek, CANeko langilea izanda, lan baldintzak baliatu zituen, gainerakoek bezala. Areago, ni CANeko organoetan ez nengoela, horrela, sinpleki.

Zein da PSNren jarrera CANi dago-kionez?

CAN fundazioa izatera pasa bada, guk haxe diogu: Nafarroak konpetentzia eskusiboak ditu Fundazio kontuetan eta Parlamentuak arautu behar du Fundazio horren etorkizuna, baita berau zuzenduko duten organoak ere. Caixabank bihurtu bidean izandako fusio guztien izapi-

deak argira atera daitezzen nahi dugu. CANeko arduradunek azken urteotan eman den prozesua nolakoa izan den azaldu behar dute, CAN non zegoen eta non dagoen gardentasunez eta lasaitasunez azalduz.

Nafarroako eta Valentiako erkidegoetan irregularitasun kasu nabarmenak agertzea, deigarria bada, ezta?

Nafarroan eman diren ustelkeria eta irregularitasun kasuak ezin dira alderatu Valentzia, Madril, Balear Uharteak edota Galiziakoekin. Ez dira alderagarriak. Egia da, iraganean izan zirela delituzko egitateak, zigortuak izan zirenak. Gero ere gauzatxoak izan dira. Euskadin ere izan dira fenomenoak, EAJren inguruan. Baina ez dut uste nabarmenak direnik. Halere, kontuz, korrupzioarekin ezin da guardia jaitsi, alertan egon behar da, bera baita politika modurik gaiztoenean erasotzen duena.

Nafarroako Parlamentuko jardueraz: PSNk errenta eta sozietate zergen aldaketa itundu du UPNrekin. Hots, hatsa eman dio UPNri.

Ez da egia. Errotik ez ezatzen dut gezur hori. Errentari buruzko zerga onartu zen guk aurkeztutako propo-

samenean oinarritua. Ondare zerga berriz, guk eramandako proposamenaren harian. Sozietate zerga ere aurrera atera zen gure proposamenaren bidetik. Aizu, UPNk gure proposamenak ontzat ematen badi-tu... Beste proposamenetan beste talde zenbaitek bat egin zuten. Beraz, onartu den Erreforma fiskala oso onuragarria da, guk nahi genuena. Ez dugu inorekin itundu, bat egin dugu, beste batzuek gurea bozkatu dute. Beraz, primeran.

UPNrekin batera gobernatu duzue legealdi honetan, udara arte. Zein da esperientziaren irakaspena?

Etapak berea egin zuen bi hilabete-ra, jatorrizko bekatuarekin sortu baitzen. Hau da, UPNk PPrekin ituna egin zuen unetik, PPren politiken segimendua egin zuenetik. Irakaspena: UPN eta Barcina ez dira fidagarriak, gurekin akordio bat sinatu eta bi minutura PPrekin baitaude. Politika antagonikoak ditugu, eta krisi egoeran gehiago. PP-UPNk apustu egiten dute murrizketak egin aldera eta austeritate depresiboaren bidez. Gure politika hazkunde eta ongizate gizartearen aldekoa da.

PSNk aldaketa aldarrikatzen du Nafarroan. 2007an aukera izan zuen, baina finean Madrilgo Ferraz-etik kontrakoa erabaki zen. Fernando Puras presidentegai zela, Jose Blacok ebatzi zuen. Hori aldatu daiteke etorkizunean? UPNren alternatiba gauzatuko al da?

Nire uste osoa da, nafarrek UPNren alternatiba nahi badute, alternatiba sinesgarria izanen dela, ardura-tsua, politika hobeto joan dadin berme izanen dena. Eta berme hori alderdi sozialista da. Alderdi sozialistak segurtasuna eskaintzen du, aldiz, oposizioko gainontzeko indar politikoez eskaintzen dutena Foru Erkidegoa desagertzea da, eta nafar gehiengoak ez du hori nahi. Aldaketa bada ezkerreko politikak egiteko izanen da, ekonomiaren hazkunde eta ongizatearen gizarite iraunkorra bermatzeko, gaizkien dauden pertsonen egoera hobetzeko. Parametro horietan nahi duenarekin akordioetara iristeko prest gaude. Alternatiba alderdi sozialista da. Baina, baten bat pentsatzen ari



“Egia da, hemen une erabakigarri zenbaitetan alderdi irmoagoa izan behar genuen UPNrekiko. Baina, egia da, terrorismoak baldintzatuak izan garela”.

bada, PSNk artikulatuko duela alternatiba nafar erkidego forala desagertu nahi dutenekin...

UPNk martxoan egingen du bere kongresua. Miguel Sanz agertu da mintzatoki politikoetan esanez, PSNren jarrerak ez duela legealdia osatzen laguntzen. Aurreratuko al dira hauteskundeak? Hala nahi du PSNk?

Guri ez zaizkigu axola UPNren arazoak. Ez gaude horretan, eta gainera, hauteskundeak aurreratzea ez dago gure esku, Gobernuko presidentearen borondatearen arabera baizik. Gure lana proposamenak egitea da Parlamentuan, eta hala egin dugu: iruzur fiskalaren lege alternatiboak. Osasungintzaren unibertsaltasuna bermatzeko %0,7 joan dadin errenta deklarazioetan helburu zehatzetara, eta ez Gober-

nuak nahi duena egiteko. Nafarrek ko-ordainketa farmazeutikoa ez dezaten egin, eta enplegu sortzailerak sustatzeko neurriak proposatu ditugu. Beste batzuk hauteskundeak buruan ari badira politika egiten, ari daitezten. Hauteskundeak iristen direnean, bada, ekinen diegu. historia duen alderdi sendoa gara.

Tira, Iruñeko udalean, esaterako, hiru zinegotzirekin geratu zarete.

Gauza bat da 2011n emaitza txarrak izatea... Baina onartu dezagun PSN dela Trantsizioaz geroztik sigla beraren azpian aurkezten den bakarra. Ikusi besteak, alternatiba gurekin artikulatu nahi dutenek, izena aldatzen dute bi urtetan behin: Nafarroa Bai, Geroa Bai, Amaiur, EH Bildu, Euskal Herritarrok, ANV, Herri Batasuna... Aizu, horrek ez du segurtasunik ematen. Besterik da testuinguru batean emaitza txarrak izatea. Alderdi hau sendoa da, oso errotua nafar gizar-tean, egitura indartsu batekin, nahi lukete beste batzuek...

UPNz besteko alderdiekin akordioetara iristea zaila dela dirudi.

Azken batzorde erregionalean hartu genuen jarrera garbia da: UPNrekin bilateralaltasun denbora bukatu da. Horrek ez du esan nahi alde batera uzten dugula eta lehentasuna dugula beste taldeekin. Beste taldeekin

“Gurekin alternatiba artikulatu nahi dutenek izena aldatzen dute bi urtean behin: Nafarroa Bai, Geroa Bai, Amaiur, EH Bildu, Euskal Herritarrok, ANV, Herri Batasuna... Aizu, horrek ez du segurtasunik ematen”



“4. Xedapen Iragakorra da, batzuek aipatzen duten erabakitze eskubidearen berme hobereana. Nafar herriak iritzia eman eta erabaki baitezake”.

ezkerreko postulatueta bat egin dezakegu, hori gertatzen da sarritan. Aparteko ordain sarian edo funtzionarioen ordutegian, ondare zergan eta beste zenbaitetan bat egin dugu. Eta beste kontuetan UPNrekin. Dena den, gu alderdi sozialista gara, UPNrekiko eta nazionalistenganako ezberdinak. Garena gara: alderdi sozialista obreiro espainola.

Artean, zuk aipatu nazionalismoa zabaltzen ari da, EH Bilduren eta Geroa Bairen bitartez.

Hori ez da guztiz egia. Euskal nazionalismoa apenas hazi da botoetan Nafarroan. Besterik da eserlekuak irabazi izana, gure botoemaiak etxean geratu direlako. Ez da gauza bera. Historikoki nazionalismoaren tokiak garrantzia izan du, eta dauka. Baina ez du gora egin. Sigla anabasa horretan, askoz gehiago direla ematen du, hainbat alderdi izanda, bozeramaile ugari, baina funtsean anabasa da gailentzen dena, eta hiritarreak ez dute ezer argi ikusten. Funtsean, euskal nazionalismoa politika sentitzeko modu bat da, mugimendu sentimentala arrazionala baino, nazionalismo guztiak bezala. Errespetu guztiarekin diot, eta ni urrun nago horietatik.

Adi! Geroa Baik PSNren botoen edo espazioaren parte bat hartu dezake.

Inola ere ez. Datuek diotenez guk ez dugu Geroa Bairekin lehia elektoralik. Gure espazio elektoralera posizio moderatueta dago. Alderdi nazionalista batek nekez kenduko dizkio botoak sozialismoari.

Ezker abertzaleak ez, baina baskismoaren inguruko botoak...

Gauza ezberdinez ari gara. Baskismoak badu lekua gure alderdian, horren lekuko erkidego honen izaera da. Baina alderdi hau ez da nazionalista. Egia da, gehiago eboluzionatu behar dugu alde horretara, sentsibilitate hori egon baitago erkidegoan, eta alderdi honen zioa biltzea eta gehitzea da.

Beno, nazionalista ez zarela ere...

Ez naizela euskal nazionalista...

Nazionalista espainola zarela erran dezake baten batek.

Ezta ere.

Nafartasunean non zaude, non PSN?

Guk kontu identitarioei ez diegu kasurik egiten. Gure alderdiak Nafarroan nahiz Espainian bokazio internazionalista dauka oroz gainetik. Kontu kolektiboaz baino, herri modura baino, pertsonaz ari gara,

hori da gure diferentzia edozein nazionalismoren aldean, edozein jatorrikoa dela. Guk kolektibitateak, frontierak, hizkuntzak eta herriak baino pertsonak ikusten ditugu.

Non dago ezkerre Nafarroan? Nola bildu berau?

Printzipioetan eta baloreetan oinarrituta. Ezkerreko den alderdiak lehentasunak garbi dauzka: aukera berdinen eta bizitza duinaren baldintzak pertsona guztientzat bermatzea. Hori da lehentasuna. Eta horri buruz zuzentzen dira baliabideak eta legeak sortzen. Oroz gainetik norbanakoak daude, ez kolektibitateak. Hori da ezkerre.

Eskubide kolektiboak ez daude, orduan?

Ez ditut ukatzen, noski, baina lehenik pertsonak daude, subjektuak. Eskubideen subjektua pertsona da. Hor dago diferentzia.

EH Bilduk, esaterako, ez du ezkerreko politikarik egiten?

Bai, gai batzuetan bai. Baina galdera da: zein da EH Bildurentzat lehenik, ezkerreko politikak edo autodeterminazioa eta independentzia?

Autodeterminazioa ez al da eskubide bat? Nafarroako Erkidegoa autodeterminatu daiteke, ezta?

Herri bakoitza egunegun autodeterminatzen da, hauteskundeetan...

Eman dezagun egunen batean, abertzaletasuna dela gehiengoa...

Bada, 4. Xedapen Iragakorrari esker Nafarroa Euskadira bilduko da, nafar herriak horrela erabakitzen badu. Gu kontra egongo gara, gure Foruari ondo joan zaiolako den bezala izanda. Horrek ez du esan nahi EAERI bizkarra emanda bizi behar dugula, besteak beste, lotura kulturalak ditugulako, garrantzizkoak.

4. Xedapen Iragakorra atxikitzea ontzat ematen duzu beraz.

Nik, batzuek aipatzen duten erabakitze eskubidearen berme hobereana dela diot, nafar herriak iritzia eman eta erabaki baitezake. Azkenean hori da egin beharko dena, egin beharko bada. ■



Tahrir plaza zauri batek banandu du

Egiptoarrek euren Konstituzioa onartu zuten 2012ko abenduaren 25ean. Baina erreferendumeko parte-hartze eskasak, eta aurreko asteetan oposizioaren eta Mursi presidentearen aldekoen artean izandako liskarrek, agerian utzi dute iraultza gertatu eta bi urte geroago herrialdeak oraindik bide luzea duela egiteko.

| MARC ALMODÓVAR |

NILOKO DELTAN dagoen Daman-hour nekazal hiriburua, Egiptok bizi duen haustura sozialaren adibide garbi bihurtu zen 2012ko azaroaren amaieran. Hamabost urteko Islam Masoud gaztea hil zuten bertan, Mohammed Mursi presidentearen aldekoen eta kontrakoen artean hiru egunez liskarrak izan ondoren. Egiptoko “gerra zibilaren lehen martir” gisa izendatua, Islamen heriotzak herritarren artean borroka berria ireki zuen. Anaia Musulmanek, gaztea euren anaidikoa zela aldarrikatu zuten, eta aldiz, senide eta aktibistek zioten oposizioko taldeetan zebilela. Gaztetxoaren amak uko egin zion Mohammed Mursiren emaztearen doluminak jasotzeari, eta islamistek, hiltzaileak zirela faltsuki egozteko euren aurkako konplota salatu zuten.

Egipto krisi politiko larrian sartuta zegoen, baina baita krisi sozialean ere. Azaroaren 22an Mursik dekretu polemiko berria ezagutarazi zuen, epaileen kontra egin eta bere gain botere gehiago hartzeko. Gehienez sekularra den oposizioak, erabakia diktatorialtzat hartu zuen; jarrera faraonikoa igarri zioten presidenteari eta indar islamisten menpe zegoen batzordeak idatziriko konstituzioa blindatu nahi izatea leporatu zioten. Presidentearen aldekoen ustez, behin behineko erabaki iraultzaileak ziren horiek, oso beharrezkoak, baldin eta prozesua botere judizialak bahitzerik nahi ez bazen, oraindik aurreko erre-



lazo azaroan liskarrak Egipto osoan izan ziren. Irudian, protestak Alexandrian.

gimeneko epaileek kontrolaturik baitezgoen hura.

Errebantxa kutsua du anaidiak epaileen kontra egindako erasoak. Bere lider ugari kartzelatik pasa ziren Mubaraketik izendaturiko epaile horien aginduz, eta oraindik euren menpe dituzte tribunal gehienak. Gainera, konstituzio batzordea eta senatua desegiteko eskaera epaitegietan zegoen, eta hori bakarrik ez, Anaia Musulmanen egoera legala ere normalizatu gabe dago oraindik.

Islamismo politikoaren eta indar sekularren arteko gatazka klasikoa berriz ere. Aste gutxitan Anaia Musulmanen 28 egoitza eraso zituzten herrialde osoan barrena eta hainbat hiritako kaleetan borrokak izan ziren presidentearen aldekoen eta kontrakoaren artean. Odoltzuenak El Cairoko presidentetzatza-jaregiaren atarian gertatu ziren, gutxienez hamar lagunek bizia galdu zuten sumarmek eragindako zaurien ondorioz. Berriz ere, batzuk eta besteak hildakoen gurasotasunaren eztabaidan sartu ziren; senide batzuek salatu zuten eskaintzak egin zizkietela esateko hildakoa presidentearen aldekoa zela.

Der Spiegel astekariak Mohammed el Baradei Bakearen Nobel saridunari egindako elkarrizketa batean, gatazka zibila lehertzeko beldurraz hitz egin zuen: "Indar moderatuek aho-tsik ez badute, gerra zibila lehertzeko arriskua dago Egipton". Froga argirik aurkezten ez zuten arren, estatu kolpea emateko konplota zegoela salatu zuten behin eta berriro Anaia Musulmanek, eta oposizioak anaidiari leporatzen zion herrialdea indarrez hartzeko milizia sekretuak izatea. Gizartea erabat banandurik zegoen konstituzio erreferendumaren atarian.

Mesfidantza historikoa

Indar sekularren eta islamisten arteko gatazka, denboran zehar konpondu ez den mesfidantza historiko batetik dator. Garai berrietara birziklatu nahian dabiltzan Mubaraken erregimenaren aldekoen eta islamisten arteko konfrontazioa agerikoa da; baina indar iraultzaile sekularren artean sortutako mesfidantza ere hor dago. Hosni Mubarak erori baino lehenago ere, anaidiarekin topo egin



MARC ALMODOVAR

Oposizioko zaleak Anaia Musulmanen egoitza erasotzen Alexandrian.

zuten indar horiek. Erregimenarekin negoziatzea leporatu zioten orduan, Omar Suleiman inteligentzia buruarekin, baita trantsizio prozesua militarrekin paktatzea ere.

2012ko urriaren 12an indar iraultzaileak eta islamistak muturka hasi ziren Tahrir plazan eta anaidiaren autobus bat erre zuten. Baina ez zen lehen aldia. Iazko udaberrian halako borrokak gertatu ziren jadanik, baita 2011ko azaroan ere: manifestariak Tahrir plazatik bidali zuten Mohammed Beltagi, anaidiko buruetako bat.

Militarrek ekonomiaren %40 kontrolatzen dute eta AEBek 1.300 milioi euroko laguntza ematen die urtero. Horri esker trantsizioaren giltzarri dira oraindik

Bestalde, zenbait indar iraultzailek eta lehengo erregimeneko kide batzuek bat egin dute, zirkunstantziak behartuta. Esaterako, Arabiar Ligaren idazkari nagusi ohi Amr Mousa, Nazioaren Salbaziorako Frontean dago orain, eta ustelkeriak jota dagoen epailetzaren defentsan ere batera ari dira bi sektoreak. Halako batasun kakofonikoak zauriak eragin ditu, eta islamistek arnasa eman die hori salatzeke.

Baina galdera nagusietako bat da ejertzitoaren jarrera zein izango ote den. Ekonomiaren %40 inguru kon-

trolatzen dute eta AEBek 1.300 milioi euroko laguntza ematen die urtero, horri esker trantsizioaren giltzarri dira oraindik. Itxuraz eta hitzez, militarrek diote ez dutela esku hartuko, baina paktu baten zantzuak mahai gainean daude.

Iazko udan buruzagitzatza militarren erreforma egin zen, eta konstituzio batzordetik euren ordezkariak atera ez zituen erakunde ez erlijioso bakarra Indar Armatuak izan ziren. Konstituzioaren testua itxi baino 24 ordu lehenago, ejertzitoari buruzko artikulua paktatu zituzten. Hala, militarren eskaera gehienak barruan geratu ziren: aurrekontu militarrek parlamentuaren kontrolpetik at segitzea, Defentsa ministroa militarra izatea, eta militarrek zibilak epaitzeko ahalmena erabat ez galtzea. Hain zuzen, pasa den urtea bukatu aitzin iragarri da zibil bati epaiketa militarra egingo diotela, garai berrietako lehena: 6 hilabeteko kartzela zigorra, soldadu batekin eztabaidan aritzeagatik konstituzio erreferendumaren egunean.

Erreferendumak ez du inolako egonkortasunik ekarri, salatutako irregulartasunetatik harago, parte hartze oso baxua izan delako. 10 milioi egiptoarrek eman diote Konstituzioari baietza, 80 milioi biztanle dituen herrialdean. Onartutako tesuaren aultasun politikoak, boterea lortzeko borroka atzeratu baino ez du egin Egipto berrian. ■



Lankideak bidelagun

Gutxi dakielako, akatsak egingo dituelako, blokeatu egingo delako, lotsagatik... mila arrazoi ditu euskara ikasten hasi berriak lankideekin euskaraz ez egiteko. Batzuetan ordea, lankideak dira euskaraz erdipurdi dakieneri mingainetik tira egiten dietenak. Mari Carmen Matthiesek eta Itziar Redondok askatu dute mihia. Mielanjel Haranak berriz, Luis Albertori lagundu dio erabilerarako jauzia egiten.

| SAIOA LABAKA |

HELDUAROAN euskara ikasi duten langileek lankideekin gaztelaniatik euskarara egin dituzten ohitura-aldaketa prozesuak, eta langile horiek euskara ikasteko jarraitu duten ibilbidea ikertzea izan da Aldahitz ikerketaren helburu orokorra. Zortzi langileren kasuak aztertu dituzte; herri erakundeetakoak zein enpresa pribatuetakoak, eta zonalde soziolinguistiko ezberdinetakoak. Ikuspegi kualitatibotik bideratu dute ikerketa-lana, eta kasu guztietan agertu diren alderdiak identifikatu dituzte. Elkarrizketa izan da informazioa jasotzeko erabiliko metodologia. Langile bakoitzari egindako elkarrizketaz gain, euren euskara irakasle izandakoekin eta euren lankideekin ere hitz egin dute. Testigantza horien guztien bidez ikusi dute zein izan den langile horien hizkuntza-bilakaera eta zein baldintza sozial eta pertsonaletan izan den posible langile hauek lankideekin euskara normaltasunez erabiltzera pasatzea. Soziolinguistika Klusterrak gidatu du ikerketalana hainbat erakunderen laguntzaz: AEK, EMUN, Hizkuntza Politikarako Sailburuordetza, Hernaniko Udala eta Elhuyar Aholkularitza.

Langile bakoitzak baldintza eta ezaugarri jakinetan garatu du prozesua, baina badira hainbat gako kasu gehienetan antzeman dituztenak. Orotara, hamar bat ondorio nagusi atera ditu Soziolinguistika Klusterrak; ondoko leihoan zerrendatu ditugu idazpuruetan. Jarraian,

Ikerketaren ondorioak

- Erabilera ardatza da hizkuntza-ohitura berria eraikitzeko.
- Esperientzia nagusia “bikoteetan” gertatu da.
- Euskararen aldeko presioa kanpotik eta norberaren jarrera positibo berritik.
- Bidelagun euskaradun, euskaltzale eta euskalgile baten ezinbesteko laguntza.
- Hizkuntza-arau nagusia une batean aldatu da, ez pixkanaka.
- Harreman berria mamitu beharra, kideak egoera berriaren aurrean elkarri egokituz.
- Urtebete inguru behar izaten da erosotasuna egoera berrira etortzeko.
- Gertuko harremana eta maiztasun handia beharrezkoak dira.
- Konfiantzazko giroa hierarkia harremanen gainetik.
- Lantokia: euskaltoki nagusia.
- Hizkuntza-gaitasun mugatua ez da euskara erabiltzeko oztopoa.

atera dituzten ondorioetatik hiru ideia azpimarratuko ditugu.

Euskararen erabilera ez da izan, aztertu dituzten langileen kasuan, prozesuaren amaieran agertu den zerbait. Hizkuntzaren erabilera goiz hasi da, eta behin agertuz gero, prozesu osoaren bultzatzaile nagusia izan da. Erabilerari esker, hizkuntza-gaitasuna hobetu egin dute langileek, eta aldi berean, lankideekin hizkuntza-ohiturak aldatu dituzte. Erabilerari esker, beraz, bat egin dute prozesu bakarrean euskara ikasteak eta euskaraz hitz egiten ohitzeak.

Hizkuntza-ohitura aldatu duten langile gehienek lankide euskaldun baten ezinbesteko laguntza jaso dute eta, oro har, lankide euskaldun horiengatik sortu da euskaraz hitz

egiteko ekimena eta jokaera horri eusteko ardura. Langileen hizkuntza-jokaeraren funtsezko aldaketa, hortaz, bikoteetan gertatu da; euskaraz dakiten eta euskara ikasten ari diren lankide bikoteetan. Euskararen erabilera izan da prozesu horien guztien ardatza.

Aztertu dituzten kasu gehienetan, inflexio-puntu bat egon da gaztelaniatik euskarara jauzi egiteko; “Hemendik aurrera euskaraz egingo dugu”, gisa honetako esapideak erabiliz, esaterako. Hizkuntza-arau berria une jakin batean, bat-batean, finkatu da gehienetan, eta ez pixkanaka. Hasieran, erdara makulu gisa erabili da hainbat zailtasunen aurrean. Gerora, ikasketa-prozesu bakoitza bideratzeko kudeaketa plan zehatzak ezarri dituzte. ■

Mielanjel Harana, euskara irakaslea

Harana 16 langileko herri administrazio bateko zerbitzuburuaren euskara irakasle izan da. Zerbitzuburuari jakitetik erabiltzerako jautzia egiten lagundu dio.

BESTE LANGILE BATEN KASUA eza-gutzeko, haren euskara irakaslearengana jo dugu. Mielanjel Haranarekin (Amasa, 1958) hitz egin dugu. Donostiako Ilazki euskaltegiko irakaslea da eta 34 urte daramatza irakaskuntzan. Gipuzkoako Foru Aldundiko Alet programako hizkuntza-trebatzailea izan da urte askotan. Egun, eszedentzian dago.

Luis Alberto (ezizena) herri administrazio handi samar bateko zerbitzuburua da; 16ren bat kidek osatzen dute lan-taldea. Orain 20 bat urte hasi zen lanean bertan; erdaldun petoa zenean. Garai hartan, lantokiko bizpahiru kide ziren euskaraz egiten zutenak. Husetik abiatu behar izan zuen ikasketa-prozesua eta lantokian hasi zen euskara praktikatzeko lankide batekin tratua eginda; euskara-maila baxua zeukaten biek. “Euskara ikasteko gogo handia zeukaten. Euskara baldarrean aritzen ziren biak; hitzekin borrokan. Horrelako erabakiak hartzea ez da normalena izaten. Luis Albertok motibazio handia zeukan euskara ikasteko; motibazio sentimental. Ama euskalduna zuen; Alegiko baserri batean jaioa, eta txikitik herriko jaietara joaten zirenean, bere adineko gaztetxoak euskaraz ari zirela ikusten zuen, bertsolariak zeudela... Miresmena sortu zitzaion mundu horrekiko”.

Mielanjel Haranak euskaltegiko prozesu guztia egin zuen zeukanean ezagutu zuen Luis Alberto. Ezagutzatik erabilerarako jautzia ematen lagundu zion; komunikatzea garrantzitsuena zela azpimarratuz, goi mailako euskara erabiltzea eta akatsik gabeko euskara egitea bigarren mailan utziz. “Abokatua da ofizioz; ikasten dakiena, eta hizkuntzaren egiturak oso ondo barneratu zituen euskaltegian, baina puzzle ondo burutuek ez zioten balio komunikatzeko. Nolabait esateko, deserakustera joan nintzaion. Kolpetik bertsolaritzara eramanean



HARANAK UTZIA

Harana kritikoa agertu da euskaltegiekiko eta administrazioarekiko: “Hizkuntzaren egiturak oso ondo barneratu zituen Luis Albertok euskaltegian, baina puzzle ondo burutuek ez zioten balio komunikatzeko”.

nuen. Hizkuntza musika da, soinua, dantza. Testua partitura hutsa da; hizketari, aldiz, gorputzaren erritmoak eta espresioak jartzen dio bidea. Niretzat oinarritzko printzipioak dira. Ezin da hizkuntza erakutsi printzipio horiek gabe”.

Nola ikasi erabiltzeko

Hizkuntzak irakasteko metodologiaz eta horren garrantziaz luze hitz egin dugu Haranarekin. Praktikaren aldekoa da, finean; eta praktika konpartitzearen aldekoa. Honatx Haranaren hitzak: “Euskaltegiko prozesuan oso desbideraketa handia sortzen da ikasleengan, eta gaur egun, gehiago, esango nuke. Euskaltegiek hizketan erakusteko borondatea izan behar dute. Helduen euskalduntzeaz ari garela, ortografia, gramatika, estrukturak eta abar, erakutsi egin behar dira, jakina. Baina komunikatzeko ahalmena da garrantzitsuena. Euskarari protagonismoa eman behar zaio, akats gramatikalekin bada ere; euskaraz komunikatzeko gaitasun falta galanta dago, eta beldurra sobrante. Bestalde, administrazioeko titulazioen kontuak ere eragin handia du. Irakasleentzat edo

aztertzaileentzat errazagoa da, ikaslea neurtzeko, akatsak kontabilizatzeko azterketa egitea, beste bide batzuk jorratzea baino”.

Gaur egun, euskara da Luis Albertoren lan-hizkuntza eta baita lankide gehienena ere. Normaltasunez hitz egiten du euskaraz lankideekin, eta laugarren hizkuntza eskakizunaren jabe egin zen orain dela urte batzuk, ekimen pertsonalez. Luis Albertoren bilakaera eta zerbitzuaren bilakaera, oso uztarturik egon dira prozesu osoan. Orain urte batzuk Bikain ziurtagiria eskuratu zuen zerbitzuak.

Aldahitz ikerketako ondorioen inguruko balorazioa egiteko eskatu diogu Haranari: “Kasu guztietako langileek garaipen pertsonala izan dute; lortu dute euskaraz moldatzea, hobeto edo okerrago, baina euskaraz hitz egiteko gai dira. Aldaketa garrantzitsua egin dute. Luis Albertok ere garaipen pertsonala erdietsi zuen. Horrez gain, zerbitzuburua izanik, lortu du gainontzeko langileei transmititzea euskararen aldeko espiritua. Kasu gehienetan, langileen garaipena lankide baten laguntzari esker gertatu

dela azaltzen da ondorioetan. Ondorio nagusi bat daukat nik, ordea: lankidearen behartze lanari esker gertatu da garaipena. Kontuan hartu beharrekoa da egongo direla beste bostehun kasu huts egin dutenak. Bospasei urtez euskara ikasten egon ondoren, ez die ezertarako

balio ikasitakoak. Funtzionario askok esfortzu handia egiten dute euskara ikasteko. Baina, zertarako? Ez dute ondoan izan lankide motibatu horietako bat. Eta Lankide Handiak huts egin die: Administrazioak ez du lortu, orohar, langile multzoak euskaraz jartzerik; ez du

haientzako diskriminazio positiborik ezarri, ez da erabaki eraginkorrik hartu, modua egon arren. 15 urteko atzerapena daramagu, eta euskarako funtzionarioak hizkuntza eskakizun estralurtarretan parapetatuta, beren boteregunea zaintzen. Ez dago borondate nahikorik”. ■

Itziar Redondo, informatikaria

Lankideak hizketan entzunez, berak gaztelaniaz idatzi eta itzultzaileak bidalitako euskarazko txostenak aztertuz... ikasi du euskara Itziar Redondok, natural eta nahi gabe, dio berak.

INFORMATIKARIA DA Itziar Redondo (Gasteiz, 1973). 2000. urtean Eusko Jaurlaritzako informatika sailean hasi zen lanean, eta Hizkuntza Politikarako Sailburuordetzako kideekin batera lan egitea egokitu zitzaion informatikan laguntza teknikoa eskaintzeko: Euskalterm, toponimia datu-basea, hiztegi elektronikoak... Euskararen erabilerari lotutako egitasmoak kudeatu behar izan zituen. Era berean, langune euskaldun batekin egin zuen topo. Euskara zen lankideen harreman-hizkuntza, bai maila formal eta informalean, bai kan-



“Hasieratik ohartu nintzen euskara zela lantokian ikasi beharreko lehenengo gauza”.

Lantokian bertan egin du Redondok euskalduntze-prozesu nagusia;

erabilerari lotutako ikas-prozesua izan da berea. Ez du euskaltegiaren aparteko beharrik izan ibilbide horretan, ezta hizkuntza era sistematikoan ikasteko beharrik ere. Euskaraz egiteko ohitura eta euskaraz egiteko gaitasuna prozesu berean garatu ditu. “Erronka hartu nuen informatikako tresna berri batekin bezala; argi neukan euskaraz hitz egiteko gaitasuna lortu behar nuela. Eta horretan saiatu nintzen. Egia esan, ez zitzaidan lan nekeza iruditu. Ez nuen arazorik izan horretan jarduteko lankideei esker, eta pixkanaka lortu genuen helburua. Ez nintzen euskaltegira joan zortzi urte pasa arte, eta lortutako maila titulu batean islatzeko joan nintzen hara. 10. urratsean

sartu ninduten zuzenean”.

Euskara ikasteko nola moldatu zen galdetu diogu: “Lankideek nola hitz egiten zuten hasi nintzen entzuten eta esaldien egiturak nola egiten zituzten barnerrazten. Pixkanaka hitz egiten hasi nintzen; ikasten. Idatzizkoa lantzeko lankide baten laguntza izan nuen; testu laburrak, e-postak... zuzentzen zizkidan. Bestalde, informatikako txosten teknikoak ere, euskaraz idatzi behar izaten genituen. Hasieran, gaztelaniaz egiten nituen eta itzultzeri bidali. Bueltan itzulita etor-

tzen ziren txostenak aztertzen nituen: terminologia, egiturak... Txostenak neuk idaztea lortu nuen gero”.

Egun, EGA agiriaren jabe da eta lankideekin erabateko normaltasunez egiten du euskaraz. 4. HE ateratzeko prestaketa lanetan ere badabil. Lan munduan ikasitako hizkuntza etxera eraman du Itziar Redondok. Bi seme txiki ditu eta euskaraz hitz egiten du beraiekin. “Orain konturatu naiz prozesu horretan hizkuntza-ohiturak aldatu ditudala. Ez naiz ohartu orain arte. Informatikako tresna bat erabiltzen trebea izan naitekeen bezala, orain trebeagoa naiz euskaraz hitz egiten. Prozesu naturala izan da, nahi gabe lortu dudana”. ■

Mari Carmen Matthies, Osakidetzako langilea

Bermeoko Ospitalean lankide euskaldunez inguratua zegoen. Laster eman zuen izena hizkuntza-eskolan. Lankideek gogoz lagundu zioten euskararako bidaian.

EZ ZUEN giro euskaldunik ezagutu txikitan Mari Carmen Matthiesek (Bilbo, 1968); ikastetxean izan zuen lehen harremana hizkuntzarekin. Gustuko ikasgaia zuen Euskara; hori besterik ez. Gaztelaniaz hitz egiten zuen etxean gurasoekin, baita kalean ere lagunekin; euskara erabiltzeko aukera eta gune gutxi zituen garai hartan. Bere amak helduaroan ikasi zuen euskara gau-eskolatar joanez, eta EGA titulu ere ateratu zuen, gerora. Garrantzitsua izan zen hori Carmenentzat; euskara ikasten hasteko lehenengo bultzada. 2002. urtean haurdun geratu zenean hartu zuen, ordea, euskara ikasteko erabaki sendoa. Haurra izan zen motibazio nagusia; umearen ama-hizkuntza euskara izatea nahi zuen. Bere kabuz hasi zen, orduan, euskara ikasten; *Bakarka* metodoarekin.

2003an Bermeoko Ospitalean, Osakidetzan, hasi zen lanean giza baliabideen alorrean. Lan giro eta lankide euskaldunak topatu zituen: “Gauza berria izan zen hori niretzat, eta oso garrantzitsua. Lankide askok euskaraz hitz egiten zuten lanean, eta baita lanetik kanpo ere. Askok entzuten nuen euskara ospitalean”. Handik gutxira, Bermeoko hizkuntza-eskolan eman zuen izena. “Lankideei komentatu nien euskara ikasten hasi nintzela. Momentu hartan asko kostatzen zitzaidan euskaraz egitea eta ez nintzen ausartzen



Euskaraz gutxi jakin arren hitz egiten saiatuko zela erabaki zuenean lankideek berba egitera animatu zuten.

jendaurrean hitz egitera. Oso mugatua nengoen eta banekien akats asko egiten nituela; guztiz blokeatuta geratzen nintzen. Lankideek euren laguntza eskaini zidan euskara praktikatzeko. Euskaraz hitz egitera animatu ninduten”.

Lankideen laguntzarekin eta hizkuntza-eskolan ikasitakoarekin hasi zen poliki-poliki euskara erabiltzen, eta erosoago sentitzen. “Hasieran ez zizkidaten akatsak zuzentzen. ‘Txarto egin duzu!’ eta horrelakoak ez zizkidaten esaten. Alderantziz, asko animatzen ninduten: ‘Oso ondo ari zara!’, ‘Konturatu al zara zenbat hitz egin duzun gaur?’. Eta hori oso polita izan zen niretzat. Jasotako laguntza gakoa izan zen aurrera egin ahal izateko. Beste egoera bat aurkitu izan banu, bada igoal ez nukkeen ezer lortuko”. Bermeotarrak hitz egiten zuten Carmenen lankide gehienek, eta euskalki

horren erabilerak ez zuten Carmenen ikaste-prozesua zaildu. Hasieran, batueraren aldera jotzen zuten lankideek, laguntze aldera.

2008. urtean EGA agiria eskuratu zuen. 4. HE prestatzen ere hasi zen, hartara behartuta ez egon arren; lan-eremu formalean euskaraz erabateko normaltasunez jardun nahi zuen. Arazo pertsonalengatik alboratuta dauka egun, baina aurrerago helduko dio gaiari. Era berean, bere euskalkia aberasteko asmoa ere badu Carmenek. Egun, Morgan

bizi da Carmen; giro euskaldunean. Lantokian egindako ibilbidea gogoratuz, gustura sentitzen da orain. “Lantokian edo kalean norbaitek zerbait galdetzen didanean, nik ematen diot euskaraz edo gaztelaniaz hitz egiteko aukera. Lehen hitza euskaraz egiten dut beti. Orain hamar urte, ez nintzen hori egiteko gauza. Hizkuntza-ohitura aldaketa egin dut”.

Esperientziaren inguruko azken gogoeta egiteko eskatu diogu Carmen: “Oso garrantzitsua izan da niretzat lankideek eskaini zidaten babesa. Momentu batzuetan beharrezkoa da laguntza hori aurrera egiteko, eta nik topatu nuen. Hor dago gakoa. Bestalde, norberak hartzen duen konpromisoa dago. Nik bere garaian laguntza jaso nuen, eta orain, saiatzen naiz beste batzuei ere laguntza eskaintzen”. ■



Babeslea: Hondarribiko Udala



Hondarribiko Udala

Ingelesari ez ote zaio mugarik jarri behar?

PATRICIA RYAN britainiarrak hamarkadak egin ditu arabiar golkoko herrialdeetan ingelesa irakasten. Munduko bazter guztietara zabaldu den eta horretan ari den hizkuntzaz eta gainerako guztietaz gogoeta egiteko astia izan du. Modernizatzeko, unibertsitate onenetan sartzeko... ikasleak eta gurasoak ahalegin betean irudikatu ditu Ryanek. Besteak beste, negozio ikaragarritzat du ingeles irakaskuntza. Ez dio uko egiten ingelesa ikasi/irakasteari, baina mugaren bat behar dela dio, eta tartean galdera hau bota du: 14 egunetik behin hizkuntza bat hiltzen da. Horrek zerikusirik ba



ote du ingelesaren globalizazioarekin?

Munduan milioika lagun ari dira ingeles azterketak egiten; ordaindu egin behar diren etsaminak. Eta Ryanek berak dio txiroenek adibidez ezin dutela halakorik ordaindu.

10 minutuko bideoa hemen duzue: clearazi.org/2012/05/28/maitaturere-hizkuntza.

Martxoaren 2an mobilizazioak Werten erreformaren aurka

ELA, LAB ETA EILAS sindikatuek martxoaren 2rako mobilizazio deialdia egin dute. Espainiako Hezkuntza ministro José Ignacio Werten erreforma “inposatzailea, zentralizatzailea, uniformatzailea, espainolizatzailea, atzerakoia, doktrinatzatzailea, segregatzailea eta elitista” dela salatu dute. Erantzunak erasoaren tamainakoa izan behar duela diote eta Nafarroako Gobernuari, Eusko Jaurlaritzari eta alderdi politikoei bat egiteko eskatu diete. CCOO eta UGTk ere gauza bera egin beharko luketela uste dute.

Bahea

Vicenç Villatoro kazetariak Gaur8n esanak:

“Ekialdean, adibidez, euren komunitatea zehazteko erlijioa, odola edo jaioren lekua gisako elementuak erabiltzen dituzte, eta, hori, zure izatea hizkuntzaren arabera zehaztea baino askoz zurrunagoa da. Ez du malgutasunik onartzen, odola duguna dugulako. Ez dago aldatzerik. Erlijioarekin berdin, hiru erlijiotakoa izan zaitezke, baina, ziurrenik, hiru-eretatik botako zaituzte. Hizkuntzarekin ez da hori gertatzen;

hizkuntzak metagarriak dira, adopta daitezke.

Hizkuntza da barruan edo kanpoan kokatzen zaituena, hizkuntza da komunitate sentimentala zehazten duena. Eta, beraz, hizkuntza izan daiteke kohesio soziala bezalako gauza zail bezain garrantzitsua bideratzeko gakoa, baldin eta hizkuntza identitate sentimental edo komunitarioaren erdian jartzen baduzu”.

EKONOMIAREN TALAIAN • TERMOMETROA

Gerretako interes ekonomikoak

FRANTZIAKO KOLONIA IZANDAKO Mali iparraldean eraso militarra jo du Frantziako Gobernuak, eta Aljerian eragiten ari da jadanik. Frantziako presidente François Hollandek dio eraso “antiterrorista eta behin behinekoa” dela, Bamako hiriburuan bizi diren frantziar biztanleak babesteko eta Malik bere lurraldea berreskura dezan. Gune hartara 2.500 militar bidali ditu eta European nahiz AEBetan babes logistiko bila dabil. Espainiako Estatuak baimena eman dio Frantziako abiazioari bere aire espazioa erabiltzeko eta laguntza gehiago ere emango omen dio. Eraso hasi zenetik 30.000 lagun euren etxeak utzi eta herrialdetik atera nahian dabilta, batez ere Mauritania eta Aljeria aldera. Hollandek honakoa esan du: “Ez gaude Malin gure enpresak defendatzeko, gure herritarrak baizik”.

Hain justu, badirudi interes ekonomikoak daudela jokoan misio militar honetan. Beste eraso eta gerretan ere hala gertatu da, AEBek Pertsiar Golkoan edo

Afganistanen beren petrolio erreferbak defendatzeko egindakoak kasu. Malin ere interes ekonomiko ugari daude. Zehazki, lehengaiak merke erazten dituzten enpresak daude han, Frantziako zentral nuklearrak funtzionatzeko beharrezkoa den uranioa ateratzen dute, adibidez. Testuinguru horretan, azkenaldian enpresa horietako langileak bahitu dituzte. Eraso militarra jotzeko, Frantziako Gobernuak arazoitzen du “demokraziaren defentsan” ari dela, islamiar “terroristek” bortxatua izan delako. Aitzitik, azken urteetan Maliko Gobernuak egindako bortxaketa ugariaren eta ustelkeriaren aurrean, ez du ezer egin. Zergatik orain hainbesteko presa erasotzeko? Demokraziaren defentsaz ala uranio merkeaz ari gara?



Juan Mari Arregi

#idlenomore

Kanadako indigena haserretuek aldarri

Kanadako jende askoren egonezin eta haserreak bildu ditu Idle No More mugimenduak: hiri aberatsen bazterretan abandonaturik bizirautean duten indigenenak, petrolio-hodi berriek eta harea alkitrandunak ustiatzeko lantegiek kaltetu zein kezkarazitakoenak, Estatuak herritarrei zeuzkaten babes sozialak kentzeagatik oldartzen direnenak...

| PELLO ZUBIRIA KAMINO |

HILABETE PARE BAT SORTU ZELA eta gureganaino ere iritsi da haren zipriztina. Urtarrilaren 5eko *Berrian* Samara Veltek idatzi zuen: “Iparraldeko aiene indigenak. Protestak antolatzen aritu da Kanadako Idle No More plataforma indigena; azkenean haiekin biltzea onartu du Lehen ministroak”. Bi egun beranduago galdetu du lerroburuan *CBC Newsen* Mark Gollomek: “*Is Idle No More the new Occupy Wall Street?*”, alegia, Idle No More alderatu ote daitekeen Occupy Wall Street bezalako batekin, atera kontuak.

Idle No More Samara Veltek euskaraz eman du “inaktibitate gehiagorik ez”. Esan liteke ere “gehiago geldi ez”. Gazteek asmatu balute, #geyogeldiez edo #ezgeldikegeatu idatziko zuketean, ziurrenera. Zeren eta “#” hori funtsezkoa baita: Idle No More ezin da ulertu, Occupy Wall Street eta azken hilabeteotako protesta saio gehienak legez, Twitter eta oro har Internetik gabe.

Wikipedian leitu daitekeenez, Idle No More iazko azaroan asmatu zuten Kanadan Stephen Harperren politika ezin eramanez elkarri zer egin galdezka ari ziren Nina Wilson, Sheelah Mclean, Sylvia McAdam eta Jessica Gordonek. Saskatoon hirian lelo harekin antolatutako bilkura geldituko da hasierako markatzat.

Ordurako egonezina handia zen Kanadako herritar askoren artean. 2012ko udaberrian zalapartarik handiena ikasleek sortu zuten: Gobernuak hezkuntzan daraman politikaz haserre baldin baziren, unibertsitateko tasak igotzeko erabakiak sutu zituen bazterrak. Ikasleek grebez gain, zientzako milaka jendeak egin zuten protesta karriketan.

Baina ikasleak ez ziren zintzurra estutzen nabaritzen zuten kanadar bakarrak. 2011z geroztik Harperren gobernuak herrialdearen legedi osoaren aldaketa sakona abiarazi du, Kanadako lege eta arau oinarritzako multzoka ukitu edo eraldatzen dituzten *omnibus bill* direlakoen bidez.

Jendeak *omnibus bill* (hitzez hitz, “erabilera anitzeko lege”) deitzen dituenekin Gobernuak eskua sartu du funtsean Kanadako hiru alorrotan: bertako indigenen eskubideak arautzen dituen *Indian Act* legearenean, nabigatzeko gai diren urei dagokion legedian eta ingurumenaren babeserako lege eta arauetan.

Aldaketok loturik daude Kanadako dauzkan baliabideen ustiaketa-rekin. Eta batez ere petrolioarenarekin. Azken urteotan ohiko petrolioaren produkzioa munduan bere gorenera iritsi dela eta, enjerearen multinazionalak irrika bere-

Calgary Herald egunkariari hartutako argazkian, Attawapiskat tribuko buruzagi Theresa Spence ageri da gose greban, Otawako legebiltzarretik gertu dagoen Victoria Islanden ipinitako *tipi* (oihal edo larruzko etxola) barruan, bere militantzian aldezkari dituen Danny Matatawabin eta Angela Bercierren erdian. Nazio Batuen Erakundeak berrikitan salatua zuen Attawapiskat jendea herri txiroenen bizibaldintzetan dagoela, Kanada izanik ere munduko estatu aberatsenetakoa. Abenduaren 11n egin zion uko jateari eta urtarrilaren erditsutan jarraitzen zuen. Idle No More mugimendua azaroan Nina Wilson, Sheelah Mclean, Sylvia McAdam eta Jessica Gordonek sortu zuten, Kanadako gobernuari nolabait aurre egin beharra zeukatelakoan. Hiru hilabetetan Kanada astindu eta mundu osora hedatu da mugimenduaren mezua.

ziz bilatzen dituzte gas naturala eta gas eta petrolio ez ohikoak: *fracking* gasa eta harea alkitrandunetan dagoen petrolio lodia. Bata bezala bestea ustiatzeko multinazionalak talka egin dute orain artean ingurumenaren zaintzeko legeekin eta herri indigenek beren eremuetan dauzkaten eskubideekin. Hesiok dira *omnibus bill* famatuekin Harperren gobernuak pitzatu nahi dituenak.

Urtarrilaren 28a, ekintza eguna

Indioen autonomia ahultzeko, besteren artean Otawako gobernuak legez erabaki du komunitate indigena batek bere lurak besteri alokatzeko orain arte botoemaileen gehiengoz erabaki behar bazuen, hemendik aurrera erabakia hartu ahal izango duela horretarako deitutako bilera barruko gehiengoak.

Ingurumenaren babesari dagokionez, lege eta arau berriek lausotu edo ezabatu egin dituzte petrolio hodi eta bestelako obra handiek orain arte eskaini behar zituzten bermeak.

Kanpaina hasi eta laster, Attawapiskat etniako buruzagi Theresa Spence gose greban sartu zen. Eta aldi berean protesta mugimenduak indar hartu zuen mugimendu sozialetan. Eserialdi, festa giroko manifestazio, *flash mob*, dantzaldi eta abar anitz bezain ugari burutu dituzte



begirako erabakiak hartzeko garaian. Gutako bakoitzari dagokio ikustea mugimendu honek zaintzen dituela jende guztiak, ingurumena, gure komunitateak eta auzokoak. Bakean eta solidaritatean”.

Urtarrilaren 28rako ari dira antolatzen *Idle No More World Day of Action*. Izanen da gurean ere ekintza horien berri, mugimendu sozial, sindikatu, eta abar luze baten laguntza bildu baitute jadanik.

Deialdian garbi diote ezin alderdi politikok ez dituela ordezkatzen, jendeak jendearentzako egindako mugimendua direla, “indigenen burujabetzan oinarriturik etorkizuneko belaunaldientzako ura, airea, lurra eta izaki guztiak zaintzeko”.

Adbusters aldizkariaren guneak lerroburuan ipini du: “Indigenak matxinatu dira mundu osoan. Nazioen arteko negoziazioak agertu dira berriro”.

Judy Rebickek idatzitako hau azpimarratu du *Adbustersek*: “Idle No Morek nahi du gure kulturaren eta herrialdearen aldaketa bat beltzen edo emakumeen askapen mugimenduaren tamainakoa. Eta jende zuriak eta gizonezkoek benetako aliatuak izatekotan aitortu behar duten moduan beren pribilejioa eta nolaz etekina atara dioten beltzen edo emakumeen kontrako zapalkuntzari, guk kolonook aitortu behar dugu zein handia den gutako bakoitzaren pribilejioa Jatorrizko Nazioei historian zehar eta oraindik gaur ere egindako zampaketa kolonialaren ondorioz”. Europarrok aurkituko dugu hitzok geurera egokitze modua. ■



hilabeteotan, barrurako bezala mundu osoari begirako komunikazio tresnatzat Internet dutela. Idle No More da, batez ere, *Twitterreko* #idlenomore eta *Facebookeko* 40.000 kide, gehi blogak...

Mobilizazio horrek guztiak ernearazi du lehen lorea: Harper Lehen ministroak urtarrilaren 11rako deitu zituen herri indigenen liderrak, Assembly of First Nations erakundeak koordinatzen dituenak. Bileran aurrerako urratsak egin zirela esan zen arren, haren emaitza zehatzik ez da ezagutzen oraindik.

Lerrook idazteko unea arteko Idle No More mugimenduaren azken agiriak, urtarrilaren 14ekoak, zioen: “Bidaltzailea: Idle No Moreren sortzaileak, antolatzaileak eta Adi-

neko aholkulariak Idle No Moreren erantzukizuna da Gobernuaren gaurko politikei kontra egitea Bake eta Errespetuzko bidean. Egin daiteke. Erasorik eta bortizkeriarik gabe egin daiteke. Indar handiko aldaketa garai zirrargarrietan gaude.

Mugimendu honen gidari espirituzkoak izan dira Adinekoak, ametsak, bisioak eta herrien muineko baloreak. Guk hemen lurra, urak, airea eta izakiak gu geu barne segurtatzeko, orekara itzuli behar dugu eta elkarri eta lurrari kalte egitea gelditu.

Bide on honetan jarraitzeko, eskatzen dizuegu egiteko leku bat Adinekoei eta Ezagutza Erritoei Arizaleei lagundu dezaten aurrera





**ZINKUNEGI
OPTIKA**

Hernani, 23 · 20004 Donostia
T. 943 420 624
info@zinkunegioptika.com
www.zinkunegioptika.com

zuri begira

Xabier Letona

◆ ARGIAKO ZUZENDARIA



DANI BLANCO

Espainia, munduko 30 ustelenen artean

“**ESPAINIAN** ez da aste bakarra pasatzen ustelkeria arazo bat hedabideetako tituluetan agertu barik”. Arte telebista kate frantziar-alemaniarrek Espainiako ustelkeriaz egindako dokumental baten aurkezpen gisara jaurtitako eztena da, baina ez dabil urruti. Wikipediara bisita bat eginez eta “ustelkeria Espainian” jarriz gero, primeran ikus daitezke chunka kasuetatik dozenaka ezagunenak: oraingo Bárcenas PPko diruzain ohiaren kasua, Alcorcóneko udalaren (PSOE) legez kanpoko mailegunena, Carlos Divar Espainiako epaileen buruzagiaren gastuena, Pitiusa operazioa, errege familiako Urdangarinena, EEE faltsuen auzia Andaluziako Gobernuan (PSOE), Zarrafalla, Gescartera, Forcem, Tabacalera-Alliarta, Villalonga, Filesa, PSV, Barrionuevo-Vera, Gerra anaiena...

Rajoyren Gobernuaren oraingo garaian, Rodriguez Zapaterorenean, Aznarrenean, Felipe Gonzalezenean edo Adolfo Suarezenean, Espainiako demokrazia beti gaztearen gobernu garai guztietan, ustelkeria auziak handiak izan dira, bereziki azken 25 urteetan, etxebizitzaren burbuila eta berarekin batera sortu zen finantza burbuila handitzen aritu diren bitartean.

Espainian asko eta erdeinu kutsuz hitz egin eta idazten da errepublika bananeroetako ustelkeriez. Bere errealitatea, ordea, ez da askoz hobeagoa. Bada Nazioarteko Gardentasuna izeneko GKE bat eta urterto agiten du mundu mailako 176 herrialderen ustelke-



ria zerrenda. Iragan abenduan aurkeztu zuen 2012ko txostena eta aipatu zerrendan munduko ustelenen artean Espainia 30.a zen.

Ez da erraza ustelkeria, alderdi handiak eta herritarren arteko hiruki horretan gertatzen dena ulertzea. Baina ustelkeria energiaren gisako zerbait dela iradokitzen du, ez da ez sortzen ez desagertzen, eraldatu baizik. Hedabideetan eta kalean egiazkoa eta oroko-

Nazioarteko Gardentasunaren 2012ko txostenean, 176 herrialderen artean, munduko ustelenen artean Espainia 30.ena zen

rra den ustelkeriarekiko mespretsu orokorra dago, bereziki politikarien artean ematen denarekiko. Gero, ordea, oso agerian dago ustelkeria politikoaren kasu gehienak PP eta PSOERI lotutakoak direla, hau da, urtea joan eta urtea etorri Espainiako alderdi bozka-

tuenei eta boterean txandakatzen diren horiei.

PPko diputatu ohi Jorge Triasek (*El País*, 2013-01-21) salatu du PPko buruzagiek urteetan jaso dituztela milaka euro gainsari gisa. Eta kontaktzen du baita ere Aznarren lehengo legealdian, Espainiako Kongresuko azpiatzorde batean saiatu zirela alderdien finantzazio anonimoak debekatzeko eta ez zutela lortu. Azkenean, Rodriguez Zapateroren agintaldian lortu zen.

Esanguratsua da, halaber, Fernando Rodriguez ustelkeriaren aurkako fis-

kal honen ikusmoldea. Ez da batere baikorra ustelkeriaren aurkako borrokaz eta, bere esanetan, “metraileta gaizkilearen aurka baino gaitzagoa da moketa gaizkilearen aurka egitea” (*El País*, 2013-1-20).

Euskal Herriko hegoaldea ez da salbu, noski. Eta ustelkeria mailak hegoko auzokoen kolorerik ez badu ere, ustelkeria pasarteak ugariak dira. Urralburu eta Otano auzia izan liteke horietako ospe-


suenetakoa, eta seguruenik ez da kasualitatea gaur egun diren balizko ustelkeria kasuak erresuma zaharrari lotutakoak izatea. Cervera eta Nafarroako Kutxaren auziak hor

gori-gori. Eta kasualitatea orain ere, orain arte bederen, Foru Legebiltzarrean Nafarroako Kutxaren ikerketa ukatu duten alderdi bakarrak UPN eta PSN dira. ■



ASTE HONETAKO

zozketak



Gametxo hotela

Asteburu pasa bi lagunentzat

Gametxo auzoa
Ibarrangelu BIZKAIA

www.hotelgametxo.com

1



Bilboko Euskal Museoa

3 harpidunentzat bina sarrera

Miguel de Unamuno plaza, 4
Bilbo BIZKAIA

www.euskal-museoa.org

2



Trakas

Erbestea
Juan de Diego

5 CD opari

Gaztelupeko Hotsak
Soraluze GIPUZKOA

www.hotsak.com

3



Artez euskara zerbitzua

2013
5 poltsiko agenda

Luzarra 10 - 2 Sol.
Bilbo BIZKAIA

www.artez.net

4



Atlantika

2 mahai jolas opari

www.argia.com/denda

5

AZKEN IRABAZLEAK (2351. Argia)

DONOSTIAKO AQUARIUMA

- Egoitz Ferreira Zamalloa (Galdakao)
- Uxune Iriondo Urbiztazu (Getxo)
- Kandido Eizagirre Soraluze (Donostia)
- Xabier Igoa Eriz (Aramaio)

ERRITMOA, KAZETARIAREN BATUTA liburua

- Lierni Alberdi Balzategi (Bergara)
- Xanti Saizar Arostegi (Tolosa)
- Marian Goikoetxea Garralda (Iruñea)
- Mayi Iza Agirre (Hondarribia)
- Libe Mimenza Castillo (Elorrio)

SU HAIETATIK KE HAUEK CDa

- Xabier Zubizarreta Lasagabaster (Arrasate)
- Juan Mari Etxabe Peñagarikano (Zarautz)
- Bittor Kortabitarte Diego (Bilbo)

- Jose Mari Etxezarreta Zelarain (Donostia)
- Mari Eli Ituarte Zarragoikoetxea (Markina-Xemein)

ARTEZ EUSKARA ZERBITZUA urteagenda

- Arantxa Iraeta Zubeldia (Zumarraga)
- Asier Lizarriturri Martiarena (Aretxabaleta)
- Etumeta Euskategia (Usurbil)
- Javier Iraeta Narbaiza (Durango)
- Maritxu Dorronsoro Arostegi (Lazkao)

ARGIA EGUTEGIA

- Iulen Romaratezabala Ormazabal (Oñati)
- Orkli S.Coop. (Ordizia)
- Unai Dorronsoro Zeberio (Bilbo)
- Arturo Kanpion Kultur Elkarte (Iruñea)
- Aitor Sangroniz Akarregi (Santurtzi)

* Bisitaldietarako epea: Bi hilabete

PARTE HARTZEKO

Astehenetik ostiralera 08:00-15:30

Tel: 943 36 72 85 • gunea@argia.com

www.argia.com/gunea

Gunea

argia





ATXEGA JAUREGIA JATETXEA

Aitezarra, 1
Zumartegi industrialdea
☎ 943 37 11 50
20170 Usurbil (Gipuzkoa)
www.atxegajauregia.com

